

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Ibarra euskaldunagoa egiteko zer egin daitekeen Amonarrizekin aztertuko dute gaur / 9

Irurtzango Udalaren aurrekontuan energia eraginkortasunak pisu handia izaten segitzen du / 7

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuek udal guztiendako laguntza jaso dute / 6

Roberto Martilek 2023 urtera arte berritu du kontratua Osasuna Magna Xotarekin / 16




Itsaso Arenzana etxarriarrak Giza Eskubideak Eszenara proiektuan parte hartu du / 23



Azken txartelak

Martxoaren 31n itxiko dute Altsasuko tren geltokiko txarteldegia / 6



Maialen Unanua, Anne Azkona, Leire Mazquiarian, Nerea Arguelles, Imanol Reparaz eta Daniel Echavarri gazteek Synergia Sakana sortu dute. Argazkian Mikel Manero falta da.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Instagram sare sozialean jarritako instastory batean, hau da, 24 orduz ikusgai dagoen mezu batekin hasi zen dena. Osasunaren dibulgaziorako proiektu berri baterako profesionalak eta ikasleak bilatzen zituzten. Mezuak erantzuna izan zuen, eta handik gutxira Synergia Sakana sortu zuten zazpi gazte sakandarrek: Anne Azkona Unanua nutrizionista, Nerea Arguelles Iriarte fisioterapeuta, Daniel Echavarri Manjon ariketa fisikoan aditua, Mikel Manero Arguelles ariketa fisikoan teknikoa eta fisioterapeuta, Leire Mazquiarian Bergera nutrizionista, Imanol Reparaz Escudero ariketa fisikoan teknikoa eta fisioterapeuta eta Maialen Unanua Irigoyen nutrizionista. Osasunaren inguruan hitz egiteko lehenengo jardunaldia antolatuta dute otsailaren 22 eta 23ko asteburuan, 10:00etatik 14:00etara, Iortia kultur gunean. Osasunaren inguruko gaiak gizarteratu

Osasunarekiko jarrerera hartzen

Sakanako zazpi gazteek Synergia Sakana sortu dute osasunaren dibulgazioa gizartean zabaltzeko helburuarekin. Lehenengo ekimena datorren asteburuan, hilaren 22an eta 23an antolatu duten jardunaldia izanen da

nahi dituzte, ikuspegi zientifiko batetik, jendeak bere gorputzarekiko eta bizitzarekiko kontzientzia hartzeko. Izan ere, "prebentzioa" ezinbestekoa da. Autofinantzatutako proiektu bat da, eta bi egunetarako sarrerak 10 euroko prezioa du. Sarrerak Altsasuko Iortia kultur gunean eta Gautxori tabernan, Urdiaingo Kaluxa tabernan eta Etxarri

Aranazko Xapatero tabernan daude salgai.

Osasunaren dibulgaziorako proiektu bat sortzea Reparazen ideia izan zen: "Sentitu nuen nire inguruan jendeak osasunarekiko inplikazio gutxi duela". Interes falta honen arrazoi nagusia "informazioa jasotzeko lekurik ez duela" edo informazioa "ez dela behar bezala iris-




ten" uste du Reparazek. "Horregatik pentsatu nuen polita izango zela gazte ikuspegia eta bultzada bat ematea gai honi". Reparazek Arguellesi komentatu zion ideia "eta kristoren ideia zela" iruditu zitzaion. Hortaz, jendea bilatzen hasi ziren, eta ezagutzen zuten medio batean bilatu zuten: Instagramen. Gaiaren interesa zuten

profesionalak eta ikasleak bilatu zituzten.

Azkonak ideiarekin berri izan zuenean, bat egitea pentsatu zuten: "Sakanan ez da horrelako zerbait sekula egin, eta azkenean jendeari informazioa emateko oso ideia ona da". Osasunaren profesionalak eta ikasketak amaitzen ari diren pertsonak dira, eta haien diziplinaren inguruko informazioa ematea gustatzen zaiela azaldu du Azkonak. Hori bilatzen zuten, hain zuzen, "haien profesioarekiko grina". Iraila aldera jarri zuten mezua, eta handik gutxira lehenengo bilera izan zuten taldea osatu duten zazpi gazteek. "Hasieratik oso erraza izan da guztion artean lan egitea. Oso modu politean egin du aurrera", esan du Reparazek.

Adituak

Nutrizioaren definizio "zehatz bat" ematea oso zaila dela azaldu dute Azkona, Unanua eta Mazquiarian nutrizionistek. "Denboran hainbat definizio oso desber-

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Etke pasiboetarako egokia s 9000	 Beirak lehorrean jarrita
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea			

dinak izan dira". Definizio horietako batzuk jendeak "onartzen ditu". Izan ere, egile eta ikertzaile bakoitzak bere definizioa plazaratu duela azaldu du Mazquiarenek. Azkona gerturapen bat egiten saiatu da: "Nutrizioa zientzia bat da. Elikagai bat ahotik sartzen den momentutik kanporatzen duzun arte gertatzen da prozesu guztia. Barruan gertatzen den guztia".

Synergia Sakanaren beste helburu bat osasunaren inguruan dauden "mitoekin" amaiteza da, behitaz sineskeria horiek arlo zientifikotik azaltzen saiatuko dira. Nutrizioaren inguruko "mito" zabalduena dietaren inguruan gertatzen da: "Gaizki esaten dugu nutrizionistarengana joan behar dut argaltzeko dieta egitera eta bukatzera". Azkonak azaldu duenez, onak ala txarrak izan, dieta "norberak dauka berea" eta nutrizionistek "egiten duguna da dieta hori aldatu, moldatu edo eraldatu". Hortaz, nutrizioa dieta horiek aztertzen dituen zientzia da. Unanua: "Dieta batek edo besteak zer onura dakarren". Helburua "bakoitzaren osasuna bilatzea" da: "Denok nahi dugu osasuntsu egon, bai, oso polita, baina gero elikadura bezain gauza oinarrikoa ahaztu egiten zaigu".

Bai elikatu bai gorputza mugitu automatikoki egiten diren gauzak dira. Horregatik "garrantzia kentzen" zaiela azaldu dute gazteek. "Automatikoegi" egiten dira. Synergia Sakanaren hitzaldi sortarekin, beraz, jendeak "kontzientzia" hartzea nahi dute.

Herri-pentsaeran fisioterapia masajea egitea egitea dela zabaldu dagoen ideia da, baina Reparez eta Arguellesek oso argi utzi nahi dute: "Fisioterapia ez da hori. Fisioterapiaren ehuneko oso txikia da hori. Edo behar luke izan". Fisioterapiak pazienteak "ahaldundu" behar dituela diote: "Haiei tresnak eman haiek bere gorputza eta bizitza kudeatzeko". Norberaren osasunaren kontzientzia hartzeko ematen duen zientzia da, beraz, bi gazte fisioterapeutek azaldu bezala: "Fisioterapiaren definizioa da, terapia fisikoaren erabilpena hainbat helburuetara iristeko. Azken urtetan mugimenduaren inguruko azterketa bezala ulertzen da".

"Tratatu baino prebentzioaren aldeko mezua ematea nahi dugu", esan du Unanua. Hortaz, "tra-

tatzera ez iristea". Hitzaldietara edo profesionalengana hurbiltzen den jendeak "etorkizunean arazorik ezizatea" nahi dute: "Orduan bai dela zaila tratatzea". Aurretik gauzak ongi egiten badira, gero laguntza behar izatekotan "hitz egingo dugu. Baina goazen gauzak hasieratik ekiditera".

Gizartearen eraldaketa azkarren ondorioz oso denbora gutxian gorputzek "fisiologikoki, naturalki", zer behar duten ahaztu egin dela azaldu du Reparazek: "Ordu pila bat eserita pasatzen ditugu, hartzen ditugun elikagaiak prozesu pila batzuetatik pasatzen dira...". "Fabriketatik" etortzen direla gaineratu du Unanua, "naturatik etorri beharrean". Egunerokotasunean ez badira gauzak aldatzen, genetikak "ezingo dio aurre egin" ohartarazi du Reparazek.

Sakanan ere jendea oso sedentario dela esan du Arguellesek. "Arazo handiak ikusten ditut". Bere inguruan dagoen jendea, "behintzat", ez dela mugitzen esan du. "Naturaltasunean" dago gakoak aditu gazteek diotenez: "egunero mugitzen gara, egunero jaten dugu...".

Gorputzaren ezagutza

Gorputzarekiko eta osasunarekiko jarrera aktibo bat izatea garrantzitsua dela diote Synergia Sakanako kideek. "Inplikazioa behar da. Bestela ez goaz inora". Prebentzioaz hitz egiten dute etengabe. Eta prebentzio lan horrekin hasteko osasunaren inguruko dibulgazio jardunaldia antolatuta dute datorren astebururako. Reparazek proposatu zuen formatua: "Bakoitzak badu bere lana edo bere ikasketak eta errazagoa zen bakoitzak bere aldetik gai bat lantzea eta noizean behin komunean jartzea". Bi eguneko jardunaldia izango da, larunbata eta igandea, "erosoa eta erraza". Bi egunetan hamaiketako ere eskainiko dute. Jardunaldia amaituta inkestak pasako dituzte, izan ere, lehenengo hau antolatzen "itsu" joan dira. "Jakini nahi dugu jendea-ri zer iruditzen zaion, zer interes

PREBENTZIOAREN ETA KONTZIENTZIA HARTZEAREN ALDEKO MEZUA ZABALDU NAHI DUTE GAZTEEK

dagoen, zeri buruz hitz egitea nahi duen...".

Nutrizioa, ariketa fisikoa eta fisioterapia edo gorputzaren mugimendua izango dira Synergia Sakanaren taldearen lehenengo jardunaldian tratatuko dituzten diziplina orokorrak, hala ere, diziplina bakoitzean gai jakin bati buruz hitz egingo du taldeko kide bakoitzak. Gai orokorretatik espezializatuetara hitz egingo dute, betiere publiko orokor bati zuzenduta. Nutrizioaren oinarrietatik hasiko dira, "oinarriko-oinarrikoena" eta indarraren entrenamendua, zoru pelbikoa, atleten nutrizioa, minaren teoriak eta abar landuko dituzte. Publikoak interesa eta "boligrafoa eta papera" baino ez du behar.

Lehenengo bilera egin zutenean "gai pila bat" zitu zutela esan du Azkonak. "Libreta hartu eta ezgenekien zer lotura eman". Jardunaldi bakarria egingo dutenez, "dena" sartu nahi zuten. "Lotura topatu arte". Beraz, erabaki zuten jardunaldiaren lehenengo egunean gai orokorreari buruz hitz egitea eta bigarren egunean gai espezifikoei buruz hitz egitea.

Aditu bakoitzak zeri buruz hitz egitea erabaki du. "Baina erabaki dugu jendea gustatuko litzaikeenari buruz hitz egitea" azaldu du Mazquiarenek. Publikoari edo gizartearen sortzen diren eztabaidagaietan pentsatu dute, beraz, jardunaldiaren egitaraua eta hitzaldiak prestatzeko garaian.

Nutrizioarekin hasiko dira, "oinarrikoetatik". Hortaz, Mazquiarenek oinarri nutrizionalen inguruan hitz egingo du: "Dieta on bat nola izan behar den azalduko dut, zertan jarri beharkogenkeen interesa, obesitateari buruz ere". Mitoen inguruko azalpenak ere emango ditu nutrizionistak.

Bigarren hitzaldia Azkonak emango du, eta "jakien etiketen inguruan" hitz egingo du. "Gu biok nutrizioaren oinarriari buruz hitz egingo dugu, gauza oinarrikoenak". Beraz, Azkonak supermerka-



Izena:
Leire Mazquiarian Bergera
Adina:
24 urte (1995)
Ikasketak:
► Giza nutrizioa eta dietetika graduatua Euskal Herriko Unibertsitatean
► Nutrizioa, elikadura eta metabolismoaren unibertsitate masterra egiten Nafarroako Unibertsitatean

Hitzaldia: 'Nutrizio oinarriak'

Synergia



Izena:
Maialen Unanua Irigoyen
Adina:
22 urte (1997)
Ikasketak:
► Giza nutrizioa eta dietetika graduatua Euskal Herriko Unibertsitatean
► Klinikako nutrizioa eta endokrinologia master bat egiten Murciako unibertsitatean

Hitzaldia: 'Nutrizio etiketatzea'

Synergia



Izena:
Daniel Echavarri Manjon
Adina:
26 urte (1993)
Ikasketak:
► Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduatua Leongo unibertsitatean

Hitzaldia: 'Ariketa fisikoa'

Synergia



Izena:
Imanol Reparaz Escudero
Adina:
24 urte (1995)
Ikasketak:
► Fisioterapia graduatua ikasten UManresa
► Ariketa fisikoan goi teknikaria (TSAF) Gasteiz

Hitzaldiak: 'Minaren bilakaeraren oinarriak' 'Ariketa fisikoa hirugarren adinean'

Synergia



tura joatean jendea "oso galduta dagoela" uste du, "etiketak gora eta behera aritzen gara, baina inork ez daki oso ongi nola den". Erosketak egiteko orduan etiketan jartzen duenaz "interesatzen hasteko" eta gutxienez "zer jaten duten jakiteko" azalpenak eman go dugu. "Puntu batzuk eman laguntza hori eskaintzeko".

Unanua nutrizionista da ere, baina igandean emango du hi-

tzaldia. Gai "espezializatuago" bat jorratuko du, "baina publiko orokorrarendako ere interesgarria dena". Emakumezkoen atleten triadari buruz hitz egingo du: "Energia falta, hilerokoaren ausentzia eta osteoporosi arazoak". Unanua azaldu duenez, "gero eta emakumezko kirolari gehiago dago, baina ez gara jabetzen zer arazo ekar dezakeen kontzientzia faltak". Arazoak ikustaraziko ditu, eta

prebenitzeko, diagnostikatzeko eta tratatzeko azalpenak eman go dugu.

Arguelles fisioterapia graduko praktikak egin zituenean, zoru pelbikoaren gaia ikusi zuen. "Kuadrillakoekin hizketan zoru pelbikoa aipatzen nuenean esaten zidaten ez zekitela zer den. Ikusten dut jendeak ez daukala inolako kontzientziarik eta gauza asko sartzan dira hor jokoan". Tabu bat dela azaldu du. "Jendeak ez daki tratatzen dela, jendeak beldurra du, baita lotsa ere". Zoru pelbikoa medikuntzatik eta fisioterapiatik tratatzen dela argitu du. "Hori transmititu nahi dut: zer arazo egon daitezkeen eta zergatik, arazo bat izanda kontsultatu behar dela eta zer egin daitezkeen".

Reparazek bi interbentzio egingo ditu. Lehenengoa minaren inguruan izango da: "Mina nondik jaiotzen den perspektiba eboluzionista batetik; zergatik dagoen eta zergatik gaur egun oraindik ere den hain zaila beraren kontra egitea". Zientziak mina ikusteko paradigma berri bat eman duela azaldu du: "Mina eta ehunen kaltea ez dela berdina erakutsi du. Ez du zertan erlazio zuzen bat izan behar. Ehuna suntsituta egotea eta mina egotea". Bigarren hitzaldia ariketa fisikoaren papera hirugarren adinean izango da: "Zergatik egin, zergatik ez egin, zein ariketetan aritu, nola lagundu dezake bai modu arinean bai kronikoki". Lehen mailako prebentzioa egin nahi du Reparazek hitzaldi honekin: "Askoz eraginkorragoa da".

Mina izango da ere Maneroren hizgaia, baina aspektu biososiozialesetik. "Orain garrantzia handia ematen zaio min fisikoari, ehunaren kalteari, baina psikologikoki eta sozialki eragina du minak". Aspektu hori landuko du Manerok.

Echavarrik obesitatearen inguruan hitz egingo du: "Ariketa fisikoaren onurak, eta indarra eta entrenamenduaren garrantzia azalduko ditut". Ariketa fisikoak antsietatean eta estresean duen eragina ere jarriko du begia Echavarrik.

Interesa eta pasioa

Jatea egunerokotasunean eta ia inkontzienteki egiten den zerbait da. Horregatik garrantzia handia duela uste du Unanua: "Logikoa da. Egunerok

jaten dugu. Baina konturatut nintzen benetan ez dakigula oso ondo zer suposatzen duen gauza bat jateak eta beste bat jateak". Elikadura osasuntsuari buruz gehiago jakin nahi zuen, eta horregatik erabaki zuen Giza nutrizioa eta dietetika gradua egitea. "Gero eta okerrago jaten du jende askok, obesitate gehiago dago eta horregatik guztiagatik ikasi nahi izan nuen". Orain Klinikako nutrizioa eta endokrinologia masterra egiten ari da.

Mazquiaren kasuan aukeraketa pertsonalagoa izan da nutrizioa ikastea: "Oso gaztetatik argaltzeko dietak egin izan ditut. Pisua galtzen saiatu naiz. Baina oso zaila egin zait. Dietan egon eta bat-batean uztea eta kristoren errebotea hartu". Hortaz, Mazquiarenekin jakin nahi zuen zergatik gertatzen zen hori eta jendea lagundu nahi zuen. "Horregatik ikasi nuen nutrizioa". Orain Nutrizioa, elikadura eta metabolismo unibertsitate masterra egiten ari da, eta ikerketan lan egitea gustatuko litzaioke.

Fisioterapiaren interesa zuen Azkonak, baina azkenean nutrizioa ikasi zuen. "Lehenengo mailan hasi nintzenean, fisioterapiaren eman nuen izena eta hartu ninduten. Baina nutrizioarekin jarraitzea eta ikasketak amaitzea erabaki nuen". Azkenean gustatu zitzaion, eta Nutrizio pediatrikoan, geriatrikoan eta kirol nutrizioan masterra egin zuen.

Kirol nutrizioan espezializatu zen.

"Fisioterapeuta izan nahi nuela oso argi nuen". Osasunarekiko ikuspuntu garrantzitsua dela uste du Arguellesek, eta horregatik "horri buruz" gehiago ikasi nahi izan zuen. "Fisioterapia ahaltsua eta osoa zela iruditzen zitzaidan". Oso "gustura" egon da fisioterapia ikasten, eta "arlotzuetan" asko ikasi duela esan du. Azken ikasturtean dago, praktikak egiten.

Reparazek bi ideia zituen buruan: "Alde batetik jendea lagundu nahi nuen bere egunerokotasunean eta, bestetik, ikusten nituen mugimenduaren onurak asko zirela". Horrek kirol edo ariketa fisikoan goi mailako ikasketak egitera bultzatu zuen. "Nigan onura handia izan zuen". Fisioterapiaren izena ematea erabaki zuen. "Oso polita da mugimenduaren inguruan eta mugimendua ulertzeko profesioa delako. Gorputza ulertzea ez bada gauzarik politena, ia ia".

Nahiz eta Interneten informazio asko egon, "ez dakigu nor ari den idazten, ez dakigu profesionalak diren edo zientzian oinarritutako ikerketa batean oinarritu diren". Gainera, jendeak "pixka bat hemendik pixka bat hortik" hartzen duela esan du Unanua: "Zukua edo fruta? Fruta, bai, baina zergatik? Hori entzun dugulako, baina ez dakite zein den azalpena, zergatia". Mito horiei eta beste askori aurre egiten saiatuko dira Synergia Sakanako gazteak.

Gazteak izan arren dakitenari buruz "informatzeko interes eta nahi handia" dutela esan dute Synergia Sakanako kideek. Haien helburua hitzaldien bidez prebentzioa eta gorputzekiko kontzientzia hartzea da. Momentuz datorren asteburuan egingo duten jardunaldia antolatuko dute, eta bertatik, esperientziaren iritziak jaso nahi dituzte. Instagram bidez zabalduko dute mezua, eta interesa dagoela esan dute. Arakil aldean beste jardunaldi bat "gai berdinekin edo beste batzuekin" antolatu nahi du, eta dagoeneko ari dira Irurtzango eta Arakilgo udalekin hizketan. Azkona: "Honekin jarraitzea gustatuko litzaidake. Jendeak zein arazo dituen jakitea eta horiek bideratzea". Hala ere, lehenik eta behin "egitea eta disfrutzea" nahi dute.

Synergia Sakana

Osasunaren dibulgaziorako proiektua

- 1. jardunaldia
- Urtarrilaren 22an eta 23an
- 10:00etatik 14:00etara, hamaiketakoarekin
- Nutrizioari, mugimenduari eta ariketa fisikoari buruzko hitzaldiak.
- Sarrerak Altsasuko lortian eta Gautxori tabernan, Urdiaingo Kaluxa tabernan eta Etxarriko Xapateron



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Zigor "hezitzailea"

Egoera asko, atsekabeak izan arren, normalizaturik bizi ditugu. Horieta bat trafiko arau hausteengatik jasotzen ditugun zenbait isun izaten dira. Jakina, batzuk ongi merezitakoak, baina beste batzuk "atrako" hutsak izaten dira. Askotan, polizia autoritario batek gidaria gaizkile gixajo bat bailitzan tratatuta, edo bestela, gidariak harrapatzeko estrategikoki kokatutako erradar anonimoen bidez, hainbat euroko sastakada emanez. Horrela, eguneko edo astebeteko soldata lapurtzen dute arau hauste arin batengatik.

Gauzak beste modu batera izaten ahal direla azaltzeko, kontatuko dut Kalifornian familiakoei bisita egitean gertatutakoa. Bada, astelehen goizeko 8:15 aldera, Sacramento aldeko etxebakarren auzo lasai batean gidatzen nindoala, bat-batean, eskualdeko polizia-motorraren argi urdina pizturik atzealdean. Ederki hasi dugu astea, alajaina! Bazterrera lekututa, dokumentazioa lehenengo, eta gero ohartarazpena; alegia, eskola eremu batean azkarregi nindoala, 25 milia orduko abiadura gaindituz. Nik, trafiko gutxi zebilela eta abiadura lasaian nindoala; hala ere,

EGUNEKO EDO ASTEBETEKO SOLDATA LAPURTZEN DUTE ARAU HAUSTE ARIN BATENGATIK

banekien abiadura hura aise gaindituko nuela. Orduan, poliziak esan zidan gidariak hezitzeko plan bat indarrean zutela, eta isuna jarri ordez, hitzordu bat eman zidan udaletxean trafikoko arauak buruz izanen den bi orduko formazio saio batean parte

hartzeko. Hori bai, argitu zidan formazio saiora azaltzen ez banintzen isunaren prozedura martxan hasiko zela. Beno, niretzat hori entzutea aringarria izan zen, eta, nabarmendu behar dut poliziaren jarrera denbora guztian errespetuzkoa izan zela. Sinpatikoa eta guzti irudituz zitzaidan!

Orain, Nafarroako Gobernuak trafikoaren gaineko eskumena hartu behar omen duela eta, atseginez hartuko nuke horrelako ideiarenean abian jartzea. Alegia, arau hauste arin batengatik, armak eskuetan egindako atrako baten ordez, auto gidariak hezitzeko programak martxan jartzea, eta foruzainak herriarren zerbitzura dauden agente hurbil eta ongi heziak izatea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Errotik, Sakana parekidea

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO BERDINTASUN ZERBITZUA

Azken hilabete hauetan "errotik Sakana parekidea", parte hartze prozesuan murgildu da gure eskualdea. Parte hartze prozesu honen bidez Sakanako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana diseinatuko da, eta horretarako sakandar guztion ikuspuntu, iritzi eta ekarpenak jaso nahi ditugu.

Planak helburu orokor gisa dauka, alde batetik, Mankomunitateko zein Udaletako kudeaketan genero ikuspegia txertatzea, eta, beste alde batetik, Sakanako emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna bermatzea. Xede hauek oinarritzat hartuta, planak honako arloak landuko ditu: tokiko gobernantza; emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzak; bizitzaren jasangarritasuna; zaintzaren etika, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna; eta emakumeen ahalduntzea, parte hartze sozial eta politikoa eta balioen eraldaketa.

Dagoeneko bide erdia egin dugu, eta saio hauetatik ateratako zukua oso aberasgarria izan da. Sakanan ere salda badago eta!

Azken txanpan sartu garen honetan, parte hartzeko deialdi berezia egin nahi dugu. Zu, gazte zein adinekoa, kirol elkarteko zein guraso elkarteko kidea..., Sakana parekidea lortzea helburu duen hori... zure ekarpena ere jaso nahi dugu eta horregatik azken aste hauetan egingo diren saioetan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Errotik, sustraietatik, egin nahi dugu berdintasunerako bidea. Zuk ere eraldaketa honen lekuko izan nahi baduzu, zator!

GUTUNA

Arbizu eta gizonetzkoak

IBAN MAIA, MANEX INSAUSTI ETA JESUS MARI MENDINUETA

Herri polit eta ederrean bizi garela ezin uka. Alabaina, itxuraz bikain dirudien arren, barruko zenbait egoerak beronen osasun egoera baldintzatu eta arriskuan jartzen ari direla esango genuke. (...) Diagnostikoak dio, halako batetik ateratzeko lan handia egin beharra daukagula, eta batez ere batzuek, gizonok.

Badira zenbait aste, auskalo zein arrazoiek aginduta, emakumeek bizi duten zapalkuntza, bortxa eta jazarpena auzitan jartzen dela zenbait gune eta ingurutan. Eztul txiki baten moduan hasi eta bronkitisaren itxura hartuz. Hau da, emakumeen mugimenduaren hitza zalantzan jarri eta aitzakia ezberdinez

mozorratuta agertu zaigu plaza ta kuadrilletara, epidemia bailitzan.

(...) Baina eta, giro hau sumatuta, galdetzen diogu gure buruari: ba al da bizilagunik gure artean emakumea zapalkuntzara, bortxara eta heriotzera kondenatzen duen gaitza zalantzan jartzen duenik? Edota, ba al da emakumeak gaitz horrekin betirako bizitzera kondenatu nahi dituenik? Eta, norbaitek pentsatzen al du, gizonetzkoon jarrerak, ikuskerak eta rolak aldatu gabe lortuko dugunik minbizi horrekin bukatzea? Izan ere, dudarik al dugu gizonetzko gu garela gaixotasunaren oinarri eta protagonista?

(...) Uste dugu, emakumezkoak, pairatzen duten zapalkuntzaz ari zatazizkigunean, IXILIK, ENTZUN eta IKASTEA dagokigula. Azken aldiaren gizonetzkoak herriko txokoetan

sortutako arrabotsak, sufrikario eta odol ixuriari aurre egin baino, egoera betikotzeko nahiarenean traza hartu baitiogu. Hortaz, lotsa sentitu dugu. (...) Uste genuen, gizonetzkoak kontraesan eta aitzakien gainetik, emakumezkoen hitzaren eta eskubideen defentsa sutsua egingen genuela. (...) Hots, tabernetako hitzez baino, eguneroko ekintzez. Baina ez, gure erosotasun, estatus eta pribilegioak berriz ere lehenetsi, eta gure herriko osasun egoera hobe baten aldeko borroka baztertzeko jukutrietan murgilduta gabiltza. (...)

Lerro hauen atzean, izurrite eta minbizi ororen aurka eta Arbizu hobe baten aldeko ekarpena egitea beste intentziorik ez dago. Inoren kontra joateko xederik gabe, baina herri eta pertsona bezala duintasunez bizitzen uzten ez digunari aurre eginez. (...)

Osoa: guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Geltokiko txarteldegia? martxoaren 31era arte

Gaur egun Altsasuko tren geltokiko txarteldegia astegunetan zabalik egoten da eta asteburuetan itxita. Txarteldegian 2 langile aritzen dira lanean, trenen zirkulazioaz 8 arduratzen dira eta beste 28 trenbide azpiegituz, 38 langile guztira

ALTSASU

Gauzak aldatzen ez badira, martxoaren 31n, asteartez, Altsasuko tren geltokiko txarteldegia itxi egingen da. Apiriletik aurrera tren geltokira joaten direnak makinetan atera beharko dute bidaiatzaile-txartela. Bestela, Irurtzungo edo Altsasuko Correos bulegoetan edo bidaiatzaile-agentziaren batean, www.renfe.com web orrian, 912 320 320 telefonoan edo Renfe Ticket aplikazioaren bidez. Hala jakinarazi digute tren zirkulazioaz arduratzen diren bi langilek: "guk jende guztiak dakien gauza bera dakigu, txarteldegia martxoaren 31ra arte zabalik izanen dela".



Alvia trena Altsasuko tren geltokian.

Renfek urtearen hasierarekin batera itxi zuen txarteldegia. Horretarako, argudiatu zuen egunero batz bestea ehun bidaiari baino gutxiago eta urtean 250.000 euro baino fakturazio txikiagoa zuela. Espainiako Gobernuak presidentea izendatzeko negoziazioetan PSOEk eta Teruel Existek akordioa lortu zuten 142 txarteldegiren itxiera eteteko.

Ibarra egituratzen ez duen trena Sakana punta batetik bestera zeharkatzen du trenbideak. Joan den mendeko 80ko hamarkadan herri guztietako geltokietan eta geralekuetan gelditzen ziren

trenak, egurrezko aulkiak eta konpartimentuak zituzten bagoiak eramaten zituenak. Pitteka geralekuak eta geltokiak ixten joan ziren (Bakaikuren kasuan bota ere). Egun Izurdiaga, Uhart Arakil, Etxarri Aranatz eta Altsasuko tren geltokiak daude.

Iruñea eta Gasteiz, norabide bakoitzean, egunero hirutan egiten dute trenak. Baina trenak ez dira Izurdiagan gelditzen, ez bada tren batek bestea aurreratzeko maniobra egiteko. Uhart Arakil, Etxarri Aranatz eta Altsasuko geralekuak dira gelditzeko toki bakarrak. 6 tren egunero, bost igandeetan. Altsasuko tren geltokia joan den mende hasieran gaur egungo aireportu baten parekoa zen. Iruñeko politikoak hara joan behar izaten zuten Donostiarako bidean zihozten Madrilgo agintariekin biltzeko. Bidaiari eta merkantzia garraio handia zegoen. Bertako estatuan makina bat ezkontzaturuntza egin ziren. Joandako garaia dira horiek, gaur egun Irun eta Gasteiz lotzen dituzten trenez aparte, Bartzelonara eta Galiziara joaten direnak besterik ez dira gelditzen. 6 egunean.

Gobernuak udalei 286.216 euro emanen die aurten

Astelehenean, Navarra Suma ez beste, Nafarroako Parlamentuko alderdi guztiek onartu zuten Nafarroako aurrekontuetan 10.000 biztanletik beherako udalendako Erabilera Askeko Tokiko Inbertsio Plana, despopulazioaren kontrako borroka izeneko saila izatea. EH Bilduen emendakinak 4.999.816 eurokoa da eta udalen biztanleria kopuruaren arabera banatuko da aurrekontua onartu ondoren. Sakanako udalek guztira 286.216 euro jasoko dituzte, guztiaren % 5,72. Sakan-darrak Nafarroaren % 3,09 gara.

Udalendako

- Arakil 16.518
- Iruztzun 26.000
- Irañeta 16.518
- Uhart Arakil 16.518
- Arruazu 16.518
- Lakuntza 16.518
- Arbizu 16.518
- Ergoiena 16.518
- Etxarri Aranatz 26.000
- Bakaiku 16.518
- Iturmendi 16.518
- Urdiain 16.518
- Altsasu 36.000
- Olatzagutia 16.518
- Ziordia 16.518
- SAKANA 286.216

"AHTak Sakanatik betiko trenbidetik pasa daitezke"

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) egitasmoa bertan behera utzi eta Altsasuko tren geltokiko txarteldegia zabalik mantentzea eskatzeko marxa egin zen Ziordia eta Altsasu artean larunbatean. Sakanak Trenaren Alde taldeko Martin Zelaiarekin egitasmoaz hizketatu ginen. **Zergatik ez dute tren geltokiko txarteldegia itxi behar?**

Ez da soilik txartelak saltzea. Trenera nondik igo behar duten esatea, tren ordutegiez informatzea... Nafarroako tren geltoki eta geralekuak ireki beharko lirateke.

AHTrik ez! Zergatik?

Kristoren iruzurra izanen da. Txikizio handia eragingen du.

Sakanari dagokionez, zertan da AHTren proiektua?

Mahai gainean bi alternatiba dauzkagu: bata, Aralar azpiko 22 km-ko tunel baten bidez Goierrri aldera joanen litzateke eta,



bestea, Sakana guztia zeharkatuko luke, Iruñea eta Gasteiz lotzeko. Batekin edo bestearekin Sakana guztian izanen da txikizioa. Ibarren erdian beste hesi bat izanen dugu. Dagoeneko baditugu betiko trena, autobia, errepidea, goi tentsioa bi argindar linea. Orain AHT egin nahi dute. Gure ibarrak ez du hori guztia behar. **Espainiako Gobernuak erabakituta, AHTri bultzada emanen dio?** Esaten ari dira ere, agian, aurrena betiko trena bulkatu

behar dela eta aldirikoak, batez ere, hiri handietan. Orain bidaiari gehien eramaten duena ez da AHT, aldiriko trenak baizik. Azken horretara AHTra baino diru gutxiago bideratzen dute. Abalos ministroak esan du agian bestea bulkatu behar dela. Sakanan AHT ez da beharrezkoa, egungo trena oso ona da. Erraz bikoiztu daiteke trenbidea. Agian ministerioan ere horretan ari dira pentsatzen. Ez dugu argi nola bukatuko den, baina, agian AHT Iruñean gelditu daiteke eta handik aurrera ez segitzea. Sakanatik gaur egun AHTak pasatzen dira, Alvia trenak. Horiek AHTko trenbideetan sartzen dira. Beraz, noizbait AHT Iruñera iristen bada, Sakanatik betiko trenbidetik pasa daitezke. Agian lortzen da hemen ez egitea. **Pentsatzekoa da Espainia, Euskadi eta Nafarroako gobernuen koordinazio mahaia deituko dela.**

Maria Txibitek Pedro Sanchez bilera eskatu dio. Aurreneko pausoa izan daiteke, hiruko bilera egiteko. Bilera hori oso garrantzitsua da. Hor erabakiko dute Sakanako bi alternatibetako zein hartu. Guk hori jakin nahi dugu, zeren kontra egin behar dugun jakiteko. Ez da gauza bera kristoren tunel handiaren kontra borroka egitea edo kristoren zubiaren kontra, ez baitira herri beretik pasatzen. Adi gaude. **Bitartean lanean segitzen du taldeak, ezta?** Bai, indarrez. Gero eta jende gehiago biltzen ari gara. AHT Sakanan interesa pizten duen gaia da. Uda bitarte herri bakoitzean mural bana margotu nahi dugu. Herri-margotzeak izanen lirateke. Udaldean bizikleta-martxa egin nahi dugu, mural guztiak ikusteko. Dokumental bat egiteko asmoa dugu. Herri-sarreretan seinaleak jarri nahi ditugu.

Udalak sei hilabeterako langilea kontratatuko du

Arbizuko Udalak bando bidez jakinarazi duenez, zerbitzu anitzetako langilea kontratatuko du. Deialdian interesa duten pertsonak langabezian egon behar dute eta Nafar Lansareko bulegoren batean enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon behar du. Hautagaiek gida baimena izan behar dute eta euskaraz jakin behar dute. Arbizuko Udaletik jakinarazi dutenez, kontratazioa egiterakoan arbizuarrek lehentasuna izanen dute. Aukeraturako pertsonari sei hilabete kontratua egingen dio udalak. Arbizuko Udalaren deialdian interesa duten pertsonak astelehenera arteko epea dute Nafar Lansaren izena emateko.

Udala energia eraginkortasunerantz

Aurtengo udal aurrekontuetako inbertsio nagusia Atakondoa eskolan egingen da, energia eraginkortasuna lortzeko. Ildo berean, udaletxearen azterketa egingen da eta falta diren azken bonbillak LED argiej ordezkatuko dira

IRURTZUN

Irurtzongo Udalak, EH Bilduren aldeko botoekin eta Navarra Sumaren abstentzioarekin, aurtengo aurrekontuak onartu zituen hilaren 4an. Guztira 2.043.580 euro izanen ditu udalak kudeatzeko, joan den urtean baino 101.438 (% 4,95) gutxiago. Jaitsiera horretaz galdetuta, Aitor Larraza Carrera alkateak gogorazi du joan den urtean Dinabide eraldaketa digitalerako gunea sortzeko 146.584 euro bideratu zirela eta horrek igo zuela aurrekontua.

Aurrekontuaren % 15 inbertsio-tara bideratuko du udalak. Eta alkateak jakinarazi digunez, inbertsio-tarako diruaren herena, 103.623,5 euro, Atakondoa eskola publikoan inbertituko da. "Ikastetxeko berogailuaren eraginkortasuna eskasa da, beroak ihes egiten duelako. Hori saihesteko, udalak eskolari kanpo babesa jarriko diogu eta bero ihesak % 70 murriztea espero dugu horrela, urtero % 35eko aurrezkitza lortuko dugu (3.000 euro). Gainera, elektrizitate koadroak berri-tuko dute, eta argindar kableen zati bat ere. Azken bi lan horiekin segurtasuna handitu eta egungo legedira egokituko dugu azpiegitura".

Larrazak azaldu digunez, lan horiek garagarri-laren 16tik au-



Bizikletendako bidea abendu hasieran egokitu zuten.

rrera egingen dituzte. Eta horiekin batera energia eraginkortasuna hobetzeko beste lan bat ere egingen dute: frontoian dagoen gasolioko berogailua kendu. "Kanalizazioa egingen dugu eta eskolako gas berogailuarekin berotuko dugu frontoia". Haren teiltuan eguzki plakak jarri zituzten lastailean. Ikastetxea, frontoia bera eta kiroldegia argindarrez hornitzen ditu eta argindar faktura % 65 inguru jaistea lortu dute.

Azkenik, energia eraginkortasunerako beste bi lan ere aurreikusi ditu udalak. Batetik, 38.500

euro bideratu ditu udaletxearen azterketa egin eta lehentasunezko neurriak hartzeko. Bestetik, 21.000 euroekin Akaborro industrialdeko argiteria publikoko bonbillak kendu eta LED argiak jarriko dituzte. Hori hirugarren eta azken fasea izanen da eta, horrela, Irurtzun guztian izanen dira LEDak.

Plazaola eta Ederbidea

Alkateak jakinarazi digunez, martxoaren 20rako bide berdeko lanek zertifikazioa izan behar dute. Irurtzunen bat egingen dute

Plazaolako bide berdea eta Ederbidea. Azken hori Atlantiko kostaldetik Europa iparraldea eta hegoaldea lotzen dituen Eurovelo 1 bizikleta ibilbideko parte da. Seinalez tapena jarri, bide berdeko zorua egokitu eta orain Biahizpeko tuneletan argiteria jartzeko lanak egingen ari dira. Horiek despedituta Plazaolak Andoain eta Sarasa lotuko ditu eta Ederbideak Irurtzun eta Doneztebe.

Jakinik bizikleta azpiegiturak bisitariak erakar ditzakeela, Plazaolako trenbidearen geltokia zegoen tokian Irurtzongo Udalak autokarabanendako gunea egin nahi luke. 10 karabanendako espazioa aurreikusi da, garbiketa gunearekin eta bizikletendako oinarriko mantentze espazioa lituzke. Horretarako, 71.759 euro bideratuko ditu aurrekontuan. Aldi berean, Landa Garapen Programako dirulaguntzen deialdian eskaera egin du udalak. Uhartea Arakilgoaren ondoren, eta Olatzagutian aurreratzen ez badira, Sakanako bigarren autokarabana gunea litzateke Irurtzongoa.

Bestetik, Irurtzongo igerilekuak legedira egokitu beharra du eta hori nola egin jakiteko proiektua egin behar da aurren. Alkateak jakinarazi digunez, aurtengo udal aurrekontuetan igerilekuak legedira egokitzeko proiektua egiteko 21.000 euro aurreikusi dituzte. "Umeak plisti-plasta ibiltzeko igerilekua, ertaina eta olinpikoa ditugu. Nafarroako Gobernuaren aldetik dirulaguntza jasoko bagenu igerileku sasoia despeditu ondoren, irailetik aurrera, aurrenko bi igerilekuak egokitzeko lanak egingen genituzke eta heldu den urterako utziko genuke olinpikoa. Baina lan horiek dirulaguntzen menpe

daude, 632.000 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dutelako".

Bestelakoak

Irurtzongo Udalak aurtengo garbiketa lanak egiteko udaleko zerbitzu anitzeko lantaldean aritzeko eta igerilekuko sorosle lanetan aritzeko 16 pertsona kontratatuko ditu. Bestetik, Irurtzongo Udalak 157.243 euro bideratuko ditu dirulaguntzetarako: familia kontziliaziorako, euskara ikasteko, kirol eta kultur elkarteei, Iturraskarri eta tokiko merkataritza sustatzeko. Kultur jarduerak eta ospakizunak antolatzeko, berriz, 123.494 euro izanen ditu. Azkenik, Irurtzongo parte-hartze aurrekontuen 10. urteurrena beteko da aurtengo. Hartan aritzen den taldea lanean ari da, eta lau proposamen aurkeztuko dizkie irurtzundarrei, haren iritzia jasotzeko. Udalak 35.000 euro jarriko ditu haietako bat gauzatzeko.

Dinabide

Irurtzongo Udalaren joan den urteko inbertsio nagusietako bat izan zena dagoeneko guztiz hornituta dago. Sakanako ikasleek bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute. Alkateak esan digunez, "aurtengo prestakuntza planifikazioa egina du Sakanako Garapen Agentziak. Eraldaketa digitalerako gunea jendea erakarri eta haren erabilera sustatzeko zabalkunde lana egingen ari gara".

BIZIKLETENDAKO BIDE BERDEKO LANAK MARTXO AKABERARAKO DESPEDITUKO DITUZTE

GOIZERO
10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

irratia@beleixe.eus

ZURE NEGOZIOAREN ERAKUSLEIHOA, BELEIXE IRRATIA. JARRI HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074

Bortxatuaren kontrako jazarpena salatu dute

Duela lau urteko sexu erasoaren ondorengo egunetan emakumezkoaren kontrako jazarpenak segida du gaur egun. Hala salatu zuten Altsasuko mugimendu feministak eta biktimaren lagunek. Emakumezkoari "sinisten dutela" berretsi zioten

ALTSASU

2016ko otsailaren 6ko goizaldean Alde Zaharreko taberna batean sexu eraso izan zela ebatzi zuen Espainiako Auzitegi Gorenak. Horregatik, gizonetzko altsasuar bat sei urteko espetxe zigorra betetzen ari da. Altsasuko mugimendu feministak deituta kontzentrazio jendetsua egin zen Foru plazan joan den ostegunean. *Aski da! Jazarpenik ez. Guk sinisten dizugu* leloa zuen pankarta zabaldu zuten bitartean kintoen dantzaldia eten egin zen.

Feministek gogoratu zuten duela lau urte salaketa soziala egin zutela, baita ondorengo jazarpenarena ere. "Baina kalera ateratzeko beharra izan dugu, jazarpen horrek etenik izan ez duelako". Azaldu zuten, "nazkatuta gaude erasotuak izateaz aparte, herriaren epaiketa bikotza eta jazarpenak jasotzeaz. Horrela argi uzten duzue zuen jarrera matxista". Gaztigatu zuten, "jazarpen hori biolentzia matxistaren eta patriarkatuaren beste adibide garbi bat da, emakumezko eta mugimendu feministaren kontrako eraso da". Mugimendu feministatik nabarmendu zuten, "halako jazarpen kasuek "balio beharko ligukete begiak zabaltzeko: gure kaleetan ere erasotzen gaituzte!"



Emakumezkoari babesa adierazi zioten makina bat altsasuarrak.

Lagunak

Biktimaren lagunek ere hitza hartu zuten. "Bortxaketaz gauza asko esan eta idatzi dira, gezurra gehienak. Isilik mantendu gara, errespetuagatik eta duintasunagatik. Baina badirudi horrela lortu dugun gauza bakarra dela beste batzuk biktimaren kontrako gezurrez betetako mesprezuko kanpaina handi bat egitea izan dela. Beraz, ez gara isilik mantenduko".

Adierazi zuten, "bortxaketa bat izan zen. Justizia patriarkal honek hirutan zigortu du gizon

hori". Gaineratu zuten, "biktimak bortxaketa salatu ondoren, emakumezkoek beti pasatzen zaigun moduan, bortxatua izan zela erakutsi behar izan zuten, prozesu luze eta gogor bat jasan da". Gertatutakoa gezurtatzen dutenei eta Altsasuri zuzenduta, biktimaren lagunek esan zuten, "argi eta garbi dugu Altsasun bortxaketa bat izan zela. Gure herrian ez ditugu ez bortxaketarik ezta bortxatzaileirik nahi. Ez ditugu herri epaiketak eta erasotzaileak defendatzen dituztenak jasanen". **+guaixe.eus**

Haur-eskoletako baldintza duinen aldeko kontzentrazioa

Ostegunean, 18:00etan, Altsasuko udaletxe parean 0-3 zikloko ratioa jaiste eta soldatak igotzea eskatuko dute

ALTSASU

0 eta 3 urteko zikloan lan egiten duten langileak protestan dira joan den urte akaberatik. Orain arte Nafarroako Parlamentuaren parean egindako kontzentrazioak foru geografian barna zabaltzen

hasi dira, eta horregatik deitu dute bilkura zaratatsua Altsasun heldu den ostegunerako. Haur eskoletako langileak biltzen dituen Nafarroa 0-3 plataformako kideen eskaera nagusiak une honetan bi dira: eurek zaindu

beharreko umeen kopurua jais-tea zerbitzu egokiagoa emateko eta langileen soldata igotzea.

Horrekin batera, plataformako kideek badituzte eskakizun gehiago. Batetik, 0-3 zentro guztiek araudi bera izatea aldarrikatzen dute. eta, horrekin batera, Hezkuntza Departamentuaren parte izatea eta euskarazko eskaintza bermatzea ere. Plataformako kideek kalitatezko zerbitzua eskaintzeko proposamena aurkeztu diete alderdiei dagoeneko, emaitzak azkar espero dituzte.



Otsailaren 6ko goizaldean San Juan kalean botatako edukiontzia. UTZITAKOA

Guardia Civil bat jotzeagatik zortzi hilabeteko zigorra

Epaiaketa azkarra egin zen larunbatean. Bi urtetan deliturik egiten ez badu ez du kartzelara joan beharko

ALTSASU

Kinto ospakizunak igandean despeditu ziren. Aurreneko gauean ezezagunek Gartzia Ximenez kalearen goiko aldean bi beira edukiontzi bidera irauli zituzten. Beste lau edukiontzi mugituz, bidea moztu zuten. Antzekoa gertatu zen San Juan kalean. Foruzaingoak horren berri 05:38an jaso zuten, edukiontziak bide erditik kendu zituzten eta alde egin zuten. Ondoren Guardia Civileko patruila Gartzia Ximenez kalera joan zen. Eta ustezko egileak identifikatzen ari zirela altsasuar batek guardia civil bat jo zuen. Ondorioz Guardia Civilaren eta Foruzaingoaren patruila gehiago gerturatu ziren.

Epaiak jaso denez, agenteak pertsona batzuk identifikatzen saiatzen ari zirela, "akusatuak jarrera defiatzaile eta bortitza izan eta autoritate printzipioa iraindu asmoz, agentea bizkarraren indartsu kolpatu zuen". Epaiak gaineratu zenez, "agentea akusatua identifikatzen saiatu zen, eta hark beirazko botila batekin agentea bitan kolpatzea simulatu zuen, kolpea ez jasotzeko atzera egin. Une horretan akusatua botila paretaren kontra bota zuen. Kristal zatiak beste agente bati eman zioten, lesiorik sortu gabe. Asmo berarekin, aurretik, akusatua agente horri edalontzian zuena bota zion". Epaiak adierazi duenez, bizkarraren kolpeak agenteari hantura eragin zion, baita "zorabioak eta antsietatea". Astelehenera arte bajaran izan zen agentea.

Horregatik guztiagatik Nafarroako I. Instrukzio Epaitegiak altsasuarrari atentatu delituagatik zortzi hilabeteko espetxe zigorra ezarri zion altsasuarrari. Baina ez du kartzelan sartu beharko bi urtetan deliturik egiten ez badu. Bestetik lesio arinen delituagatik 100 euroko isuna. Aldi berean, altsasuarrak guardia civilaren agenteari eragindako lesioengatik 400 euroko kalte ordaina pagatu beharko dio.

Kezka

Ostegun goizaldeko gertaeren ondoren altsasuarraren kezka zabaldu zen, are gehiago egun hartan bertan Madrilgo eskuineko hedabideek gertakarien berri ematen Guardia Civilaren kontrako "segada" izan zela zabaldu zuten. Altsasuko auziaren itzala sentitu zuten atzera ere. Javier Olló Martinezen alkateak Twitter bidez "ikertzen ari diren gertarak baloratzerakoan ordezkarik publikoek erantzukizuna" eskatu zuten, eta hedabide batzuek "zorrotasuna, euren helburua errealitatea azaltzea izan beharko luke". Guardia Civilak eraso "arina" izan zela nabarmendu zuen. Bestalde, kintoak plazan dantzan zeuden bitartean atxilotuaren askatasuna aldarrikatzeko kontzentrazioa egin zen.

Edukiontzia gurutzatu zituztelako lau pertsona identifikatu zituzten agenteek. Antza haien eremu publikoan istiluak eragiteagatik salaketa jarri eta mozal legea aplikatuko diete.



Errotik saioaren bilera bat. UTZITAKOIA

Herritarrei eta eragileei berdintasunerako deia

Sakanako berdintasun politikak diseinatzeko planean parte hartzeko deia egin dute

SAKANA

Kultur, kirol, guraso, jubilatuta eta bestelako elkarteetako kideak, eragileak eta sakandar guztiak gonbidatuta daude Sakanako Berdintasun Planaren parte-hartze prozesuan parte hartzera. Astelehenean, 17:30etik 19:30era, Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan. Mankeko Berdintasun Zerbitzuko teknikari Oihana Gallo San Romanek sakandar guztien iritziak garrantzitsuak eta aberasgarriak direla nabarmendu du gonbidapena luzatzean. Gogorarazi du, gainera, haurrak zaintzeko zer-

bitzua izan den dela. Saioak hiru zati izanzen ditu: Berdintasun gaien inguruko oinarritzko presakuntza, berdintasun Planaren hezurdura aurkeztu eta planerako ekarpenak jasotzeko talde lana. Parte-hartzea berdintasuna@sakana-mank.eus e-posta bidez konfirmatu behar da.

Sakanako aurreneko Berdintasun Plana egiteko parte-hartzeko sei saio aurreikusitako ziren. Astelehenekoa bosgarrena izan den da eta atzenekoa ostiralean, tokiko garapenaren arloan lan egiten duten erakundeak elkartuko dituen saioa.

Udalaren agenda morea gaur abiatuko da

"Volar" dokumentala emanen dute gaur, 18:00etan Zuhatzun. Protagonistetako bat ere han izanen da

ARAKIL

Emakumearen Eguna dela eta, Arakilgo Udalaren Kultura Zerbitzuak, Arakil Kulturak, agenda morea prestatu du. Egitaraua Bertha Gaztelumendiren *Volar* filmaren emanaldiarekin eta ondorengo forumarekin abiatuko da Zuhatzun. Ikus-entzunezko lan horren protagonistak genero indarkeria jasan duten bederatzik emakume dira, elkarrekin aste-buru bat pasako dutenak, landan, euren egunerokotasunetik urrun. Adin eta zeregin desberdinak dituzte baina elkar ezagutzeko

gai dira hitzen beharrik izan gabe. Biolentziatzko infernu horri aurre egiteko kuraiak batzen ditu baita pairatutako sufrimenduari zentzu bat eman nahi izateak ere. Eta euren bizi-erantzua eskaintzen diete beste emakumei eta gizarteari.

Arakilgo agenda moreak martxoaren 6an, 17:00etan, izanen du segida, Etxeberrin. Pili Mikeok Emakumeen egunaren historia berri emanen du hizketaldi batean. Eta Ihabarren martxoaren 28an, *Birritan bortxatua* antzezlan izanen da.

Kike Amonarrizekin bidegurutzean

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da Euskaltzaleen Topaguneko burua. "Zer egin dezakegu Altsasu eta Sakana euskaldunagoa izan dadin?" izenburua duen hitzaldia emanen du

ALTSASU

Euskara bidegurutze batean dago. Ideia hori zabaldu da. Euskararen biziberritzeko prozesuan aparteko garrantzia eman zitaion ezagutzari. Gaur egun adin batetik behera esan liteke euskararen ezagutza unibertsala dela, denek dakitela. Kontua da euskara ezagutzeak ez duela ekarri berarekin euskararen erabilera handitzea. Bidegurutzera iritsi izanaren zantzu bat da hori.

Mundua aldatu egin da. Eta hizkuntzaren ikuspegitik are gehiago. Globalizazioaren eskuetik ingelesak bere nagusitasuna zabaldua du mundu guztian. Elebakar gutxi gelditzen dira. Hitzunok bi, hiru edo hizkuntza gehiago dakizkigu. Horrek mundu guztiko kultur produktuak kontsumitzeko aukera ematen du, baita atzerrira ikastera joateko ere. Eta zer esanik ez, krisiaren ondoren, atzerrian lan egiteko aukerak ematen ditu. Eta gu atzerrira joaten garen modura, gurera ere etortzen da jendea. Horregatik, Sakanan gero eta hizkuntza gehiago entzuteko aukera dugu. Teknologia berriek mundua "etxekotu" digute. Denborarekin hizkuntzarekiko ikuspegia aldatuz joan da gizartean. Ertz horiek guztiak eta beste hainbatek ere euskara bidegurutzera eraman dute.

Bidegurutzean

Hizkuntzaren ezagutza belau-naldi gazteen artean orokortu den garaian, heldu diren urteetako euskararen erabilera da erronka. Euskaraz hitz egiteak efektu kutsagarria baitu: zenbat eta gehiago entzun gero eta gehiago hitz egingen da. Eta hizkuntza normalizazioaren bidean jarriko da. Kontrakoaren adibidea Irlandan baitago: gaelikoa ezagutu baina ingelesez hitz egiten dute.

Nola egin jauzi hori? Horren inguruan hizketatuko da Kike Amonarriz Altsasun gaur. "Eus-



Kike Amonarriz Altsasun, hitzaldiaren aurkezpen egunean.

kararen biziberritzea bilatzen dugunok pentsatu beharra daukagu nondik jo, nola ekin, orain arteko bideak eman beharrekota eman duelako". Aurten bigarren Euskaraldia izanen da, euskararen erabilera sustatzeko ariketa

soziala. Dinamika horrek hainbat hizkuntza inertzia hautsi nahi ditu, euskararen erabilera sustatzeko. Haren testuinguruan antolatu da Amonarriz hitzaldia. Altsasu, eta Sakana, bidegurutze horretan ote daude?

DUELA 25 URTE... 1995-02-10



Kinto olaztiarrak zorretan

1995ean 24 kinto izan zituen Olatzagutiak, 11 neska eta 13 mutil. Kinto-eskeari "jendeak ongi erantzun du, baina zer gertatzen da: orkestrak oso garestiak direla eta aurten atera dugunarekin ezin izanen dugu dena ordaindu". Kintoek tabernei eta 45 eta 60 urteko kintei diru-ekarpen handiagoa egitea proposatzen zieten. Bestalde, adierazi zuten, "dena neskok egin dugu".



ARTXIBOA

Bi egiteko Zuhaitzaren Egunean

Arakil Kulturak urteroko hitzordu baten berri eman du: Zuhaitzaren Eguna, igandean ospatuko dena. Izurdiagako futbol zelaian jarri du hitzordua, 10:00etan. Han joan den urtean landatutako 50 zuhaitzak zuzentzeko hagak jartzea. Hura despedituta

Zuhaitzaren Eguna Aizkorbe bisitatuko du. 11:30ean otamena izanen da. Eguerdian ekinen diote zuhaitzak landatzeari. Horretan parte hartu nahi dutenek, nork bere aitzurra eraman beharko du. Hori despeditzean, 12:30ean, eskulan tailerra izanen da.

Gobernuak Aralarren kudeaketa-planaren iraunaldia luzatu du

Nafarroako Gobernuak Kontserbazio Bereziko Eremuen (KBE) kudeaketa-planaren iraunaldia luzatu zuen herenegun. Foru administratibotik gaztigatu dutenez, "malgutasun handiagoa izanen da Natura 2000 Sarearen barneko KBE guneetan babes-jarduerak gauzatzeko". Gobernutik argudiatu dutenez, "gune horiek kudeatzen pilatutako esperientziak erakusten du komeni dela plangintzetan aurreikusitako jarduketak berrikustea eta gaurkotzea, gauzatzeko zailak direnak berriz formulatuz, eta bakoitzaren garapenera eta eboluziora egokituz. Ziurtatu beharra dago gauzatu ezin izan diren indarraldia ez dela agortuko".

Sakanako ikastolek Tanta ekimena aurkeztu dute

Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolek Tanta elkartasun egitasmoko txartelak saltzen hasiko dira aurki

SAKANA

Euskal Herriko hezkuntza eredu propio eta euskaldunaren aldeko 111 ikastolek elkarrekin martxan jarritako egitasmoa da Tanta, Sakanako bi ikastolek aurkeztu dutena. Bi zentroetako ordezkariak azaldu dutenez, "egitasmonek elkartasuna du oinarrian eta 60.000 euroko sari bat izanen du atxikita. Tanta zozketan 5 euroko txartelak salgai egonen dira". Zozketa garagartzaroren 25ean eginen dela jakinarazi dute. Gaztigatu dutenez, txartelak eskuratuz "Euskal Herrian

zein Sakanan euskara eta hezkuntza eredu propioak sustatzen jarraitzeko haizea emanen zaie ikastolei. Gure proiektua aurrera ateratzeko bultzada ekonomikoa jasoko dugu, euskaratik eta euskaraz".

Bi ikastoletako ordezkariak gogoratu dutenez, "badira 50 urte Sakanan ikastolek euskaraz hazi, hezi eta bizitzeko lanean hasi ginela, tantaz tanta Sakanako lurretan euskararen xirimiriaz ibarreko lurra euskaraz bustitzen". Txartelak erosiz, elkartasun keinu bat egitera deitu dute.



Altsasuarrak kanposantuan domu santu egunean. ARTXIBOA

Hilerriko nitxoetan gorpuak 40 urtez egoteko aukera

Kanposantuko nitxoan erabileraz luzatzeko hirugarren luzapen bat eskatzeko aukera dute altsasuarrak

ALTSASU

Altsasuarren eskaerari erantzunez, Altsasuko Udalak kanposantuan erabilerari buruzko ordenantzaren 33. artikulua aldatu du. Orain arte gorpuak hilerriko horma-hobietan gehiezin 30 urtez egon zitezkeen. Baina udalak onartu berri duen aldaketarekin gorpuak horma-hobietan 40 urtera arte egoteko aukera izanen da. Horretarako, hori bai, interesa duten pertsonen horma-hobia beste 10 urterako erabiltzeko beste luzapen bat eskatu beharko dute udalean. Hala ere, "luzapena emateko ezinbestekoa izanen da denboraldi horretan hilerrian premiak asetzeko adina nitxo egotea. Hirugarren luzapenak iraun bitartean, utzitako nitxoak erabili beharko balira nahikoa nitxo ez egoteagatik, udalak gorpuzkiak atera eta luzapena bukatu arte falta den denborari dagokion zati

proportzionala itzuliko lieke interesdunei".

Javier Ollo Martinez alkateak gogorarazi digunez, "azken nitxoak 2016. urtean eraiki ziren eta oraindik asko libre daude; aurreko nitxoan artean libre geratzen direnak ahaztu gabe". Altsasuko Udalaren 14. zerga ordenantzaren jasoak daude ehorzte eta lur-ematei buruzko tasak. Han jasoa dagoenez, 10 urterako horma-hobiaren alokairu esku-bidea 412,9 euro dira (BEZ barne), 10 urterako panteoiaren kontzesioa 826,8 euro, kolunbarioak 78,9 euro, panteoian, nitxoan edo lurtean ehorzteagatik 124,5 euro eta gorpuzkiak ateratzea beste horrenbeste.

Bestalde, Altsasuko kanposantuan erabilerari buruzko araudia kontsultatu nahi duenak, www.altsasu.eus web orrian du eskuragai. Toki berean ere tasen inguruko argibideak daude.

Altsasuko auziko epaileen ebazpena jaso du Ainarak

Zigorra etenda segituko du, bost urtez. Bestalde, jendetza elkartu zen larunbateko elkartasun zortzikoan

ALTSASU

Altsasuko auzian zigortu baina aske zegoen Ainarak dagoenez ez du epaitegira sinatzera joan beharko. 2018ko erdi aldera arte asteen bitan pasa behar zuen epaitegitik sinatzera, eta ordutik

pasa den atera arte 15ean behin. Bestalde, auzitegiak Ainarari pasaporte bueltatu dio. Espainiako Auzitegi Gorenak Ainarari urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri zion mehatxu eta desordena publikoko delituengatik.

Altsasu Gurasoak taldeak joan den ostiralean jakinarazi zuenez, epaitegiak zigorra bost urterako eten dio. Epe horretan deliturik betetzen ez badu ez du espetxean sartu beharrik izanen.

Auziko gainontzeko epaituei dagokienez, Aratz eta Iñaki 3. graduan daude eta astegunetan espetxera lotara bueltatu beharra dute. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 1.188 egun egin dituzte preso Zaballan. Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek, berriz, 654. Azken biak preso daude.



Auzipetu guztien askatasuna zortzikoan dantzatzu aldarrikatu zuten.



Ibarrea industrialdearen ikuspegia. ARTXIBOA

Ibarrea industrialdeko saneamendu lanei bultzada

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuan lanen bigarren eta azken faserako 250.000 euroko diru-saila izan da

ALTSASU

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordea alderdiek Nafarroako Gobernuaren aurrekontuei aurkeztutako emendakinak aztertzen aritu da aste osoan. Eta aho batez onartu da Geroa Baik aurkeztutakoa: Ibarrea industrialdeko uren saneamendua egiteko bigarren faserako 250.000 euro bideratzea. Lanen helburua da industrialdean dauden lantegietako eta etxeetako ur beltzak Altzania ubeldean ez bukatzea, araztegia baizik.

Lan horien aurreneko fasea udazkenean egin zen. Ibarrea industrialdearen hasieran zegoen kolektorearen ondoan biltegi berria egin zuten, eta industrialdeko kale guztian aurrera saneamendu sarea egin zen eta lantegiak eta etxeak hartara lotu ziren. Bigarren fasean industrialdeko hondakin urak Txunkai auzoko ur-biltegiara eramateko lanak

eginen dira. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu digunez, "teknikoki lehenengo fasea baino konplexuagoa da bigarren hau, batez ere, industriagunearen hasieran dauden bi zubiengatik, trenbidearena eta Altzania gainekoa". Alkateak jakinarazi digunez, lanen proiektua egina dago eta 400.000 euroko aurrekontua dute. Jasotako dirulaguntzarekin eta udalaren joan den urteko soberrakinarekin finantzatu dituzte lan horiek. Lanek urtea despeditu aurretik eginak egon beharko dute.

Ollok argitu digunez, "etorkizunean, agian Tokiko Azpiegitura Plan berri batekin, Ibarren auzoan eta Amezti auzoko zati batean (Ibarrea industriagunetik hasita Guardia Civilaren kaurtelera arte) ur zikinak eramateko instalazioa egin beharko da. Kasu horretan etxebizitzetaz osaturiko espazioak dira".



ARTXIBOA

Gutxienezkorako aurrekontua

Dorraako Kontzejuaren aurtengo aurrekontuak joan den urtekoaren kopuru bera du: 50.900 euro. Idoia Resano Igoa kontzeju buruak azaldu digunez, "aurreikusi daitezkeen inbertsioak badaude, aukerak badaude, baina dirua behar da. Kontzejuan sartu berri

gara eta egunean jartzen ari gara". Horregatik, aurtengo aurrekontuetan kontzejuak argiteria eta bestelako zerbitzuak eta festak sartu ditu. Resanok aipatutako "noizbait egitekoen" artean dago, esaterako Maistruban etxeko teilatua konpontzea.

Hirigintza plana egiten hasteko, sektorekako bilerak

Herriko hainbat hirigintza sektoreri buruzko informazioa jaso nahi du udalak Udal Plan Orokorra egiteko

ALTSASU

Herriko hirigintza araudi berria onartzeko prozedura martxan du Altsasuko Udalak. Udal Plan Orokorra egiteko aurreneko pausoa parte-hartze prozesua martxan jartzea da. Hirigintza ikuspegitik Altsasu hainbat sektoretan banatuta dago eta bakoitzari buruzko informazioa eskuratzeko herritarrei irekitako saioak antolatu ditu Altsasuko Udalak. Guztira zortzi saio izanen dira, Iortia kultur guneko areto txikian eginen direnak: otsailaren 28an 10:00etan Amezti eta

12:00etan Zuntaipe; martxoaren 6an 10:00etan Dermau eta 12:00etan Zelandi; martxoaren 13an 10:00etan Lezalde eta 12:00etan Zelai salmenta eta martxoak 27an 10:00etan Arkangoa eta 12:00etan Mendizal. Aurretik Altsasuko Udala hainbat erakundetako ordezkariekin elkartuko da. Gaur 10:00etan Cederna-Garalurreko eta 12:00etan Sakana Garapen Agentziako kideekin elkartuko dira. Heldu den ostiralean, berriz, Sakana Enpresari Elkartearen eta Sakana Dendarien Elkartearekin.

Nafarroako Gobernuak 145.000 euro Arbizuko udalarendako

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordea Nafarroako 2020ko aurrekontuei aurkeztutako 700 emendakinak aztertzen hasi zen astelehenean. Eta egun horretan bertan onartutako mozioen artean dago Arbizuko Udalarri 144.235,46 euro pagatzea. 0-3 zentroa eraiki zenean Hezkuntza Departamentuak udalari dirulaguntza emanen ziola aurreikusi zen. 2018an pagatzekoa zen, baina oraindik ez da halakorik egin. Horregatik, Geroa Baik eta EH Bilduk Nafarroako aurrekontuek diru-sail hori izateko mozioa aurkeztu zuten. Alderdi guztien aldeko botoa eman zuten, Navarra Suma izan ezik.

Guaixe, Beleixe eta guaixe.eus zure negozioaren bozgoragailu!

Tarifak: guaixe.eus/publizitatea
publi@guaixe.eus
 948 564 275

**arbizuko
kanpineko
taberna**

Eguneko eta asteburuko
menua

HAUTERIETARAKO
EGIN ZURE ERRESERBA!



Erreserba: 635 093 140

Baxerri
ERRETEGIA

**Ihasterietarako
egin zure erreserba**

Fernando Urkia kalea 50
31830 ARBIZU
T. 948 460 737 | M. 600 439 246



Ignazio, Piedad, Imanol eta Ana Elena igandean dominak banatu berritan.

Hiru odol-emaile etxarriar omendu dituzte

50 alditan odola emateagatik Adonaren zilarrezko domina jaso du bakoitzak

ETXARRI ARANATZ

Adona Nafarroako Odol-emaileen Elkartearen Etxarri Aranazko ordezkariaren festa egin zen atzo. Lehenik, auzatea izan zen, eta han Adonako kideek elkarrekin hitz egiteko aukera izan zuten jan eta edaten zuten bitartean. Ondoren aitortzen garaia iritsi zen. Adonako Etxarri Aranazko ordezkari Ignazio Lopez de Sabandok zilarrezko domina bana eman ziren Piedad Aiestaran Goñiri, Imanol Erauskin Huiziri eta Ana Elena Goñi Igoari. Horrela, hirurek odola 50 alditan eman izana aitortu zitzaizen.

Lopez de Sabandok jakinarazi zuenez, Etxarri Aranazko Adonaren ordezkariak 447 emaile biltzen ditu. Haietatik 119k eman zuten odola joan zen urtean, 2018an baino bik gutxiagok. 119 emaile horiek 232 odol emate egin zituzten (2018an baino 8 gutxiago). Odol emate horietatik

230 emate arruntak izan ziren eta bi aferesi. Emandako 232 odol emateetatik 26 bota zituzten atzera osasun arduradunek. Etxarriar gehienek odola herrian eman zuten (201), autobusa edo autohementeka herrira etorri zenean. Gainontzeko 31 odol-emateak beste herriren batean edo Iruñeko Adonaren egoitzan egin ziren.

Adonako arduradunak azaldu zuenez, 9 odol emaile berri egin ziren joan den urtean Etxarri Aranatzan. Osasun sistemaren oinarrizko pilarea den odol-ematearekin bat egin eta odol-emaile egitera gonbidatu zituen gazteak. Horretarako bi aukera daude. Aurrena, odol-emaileen autobusa Etxarri Aranatzera datorrenean bertatik pasatzea (maiatzak 20, garagarrikak 3 eta 10, 17:00etatik 20:30era). Bestea, Nafarroako Ospitale Gunean dagoen Adonaren egoitzatik pasatzea.

Herri-ihoteak ospatuko dituzte Ziordian bihar

Ziordiko kultur batzordeak biltzatuta herri ihoteak berreskuratzen joan den urtean. Zomorroak, Pezkinak eta Artzainak bueltan izanen dira larunbatean. 18:45ean hitzordua jarri dute gaztetxean. Handik herrian barnako kalejira abiatuko da, 19:00etan. Hura plazan despedituko dute. Han, 20:00etan, Ziordiko zortzikoa dantzatuko dute.

Ihoteak apaintzeko deia egin dute Lakuntzan

Lakuntzako kultur taldeak *Iyoteak apaindu* ekimena antolatu du. Hitzordua liburutegian jarri du, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara. Euskal Herriko hainbat ihoteetako pertsonaiaren marrazkiak izanen dira, haurrek margotu ditzaten. Horiek dagozkie inauteriaren inguruko azalpenarekin mural batean itsatsiko dituzte, ihoteetan erakusteko.

"Ikasten eta trebatzen lagundu digu"

MUNIR AKARI, SERGIO ROMERO ETA AINHOA MANTEROLA IKASLEAK ETA IRAKASLEA Lanbide Heziketa institutuko Merkataritza Zerbitzuko 1. eta 2. mailetako ikasleek eta irakasleek 114 eguberri saski saldu zituzten pedagogia proiektu baten barruan

SAKANA

Bigarren ikasturtea da Sakana Lanbide Heziketa institutua, ibarreko ekoizle txikiak biltzen dituen Belardi elkarteak eta Sakanako Garapen Agentziak bat egin eta eguberri saskien eskaintza egin dutena. Ikastetxean Oinarrizko Lanbide Heziketako Merkataritza Zerbitzuko 1. eta 2. mailetako ikasleak (10 eta 9) eta irakasleak "pozik eta oso gustura" gelditu dira.

Eguberrietako saskien eskaintza egiteak motibatzen ditu ikasleak?

A. Bai, praktikotasunetik begiratuta gehien bat. Beraiek ikasketa teorikoagotara ohituta daude. Gu saiatzen gara alderdi praktikotik teoria lantzen. Jakina, arlo teorikoa ere lantzen dugu, baina saiatzen gara beste era bateko ikasketa prozesu bat aurrera eramaten.

Hasi berriak zaretela, espero duzue horretan lan egitea?

S. Orain hasi gara eta, beno, interesgarri xamarra da. Guri gehien gustatuko litzaigukeena da bi urte hauen ondoren erdi mailako ziklo batera sartzea. Bi urte horiek egin eta gero beste lan mota batean sartzea. Gustatzen zaigun zerbait egitea.

Saskiak saltzearen helburua da...

A. Sakanako ekoizle txikiei bultzada bat ematea.

Nolakoa izan zen eguberri zareak eskaintzeko prozesua?

M. Alde batetik, eskaerak prestatzen eta produktu horiek nola saldu behar diren ikasten dugu. Baita biltegi bat nola kudeatzen den ere. Bestalde, marketing arloko ikasgaiak ditugu. Hau da, bezeroen arreta eta merchandising-ko oinarrizko teknikak. Azkenik, informatikako arloa ere lantzen dugu.

A. Beraiek dituzten ikasketekin, bezeroekin e-posta bidez harremanetan jarri dira. Bezeroak nola tratatu ere ikasten dutenez, beraiek haiekin harreman zuzena izan dute. Irakasleak baino



Ainhoa Manterola, Munir Akari eta Sergi Romero.

"BI URTETAN ONGI ATERA DENEZ, GUSTATUKO LITZAIGUKE HONEKIN SEGITZEA"

gehiago beraiek izan dira hau dena aurrera eramaten dutenak. Eta eskarien prestaketa eta kudeaketa ikasgaia dutenez, Belardiko ekoizle batzuk azken egunean etorri ziren eta, denon artean, eguberri zareak prestatu genituen. Nahikoa ikasgai jarri ditugu praktikan.

Zer produktu zeuden horietan?

A. Belardi elkarteko ekoizleak izan dira produktuak jarri dituztenak. Ikasleak Albi gaztandegiko Aritz Ganboa De Migelekin izan dira. Euren ustiatzea ikusteko gonbidapena ere egin zigun. **Eguberrietako zenbat saski prestatu zenituzten?**

M. 114 saski prestatu genituen. Eskaeraren arabera prestatu genituen.

S. Jendearen eskaerak aurretik jaso genituen, eskaerak bildu eta horren arabera produktu gehiago edo gutxiago ekartzen digute,

zareak ongi betetzeko, eta bat bera falta ez dadin.

Erosle potentzialekin ere lan egin duzue?

A. Bigarren mailako ikasleek merchandising ikasketak dute, publizitatea nola egin. Haiek kartela egin zuten eta han jakinarazten zen eskaera epea eta eskaerak egiteko e-posta zein zen. Kontakutuan jarri ziren guztiakin zuzeneko harremana izan dute. Horrela jakin zen zenbat erosle egon ziren. Epe muga bat zegoen, ekoizleak ere gazi-gatu behar zirelako: ez dakit zenbat produktu.

Emaitzarekin pozik zaudete?

M. Bai. Joan den urtean baino eskaera gehiago jaso ditugu.

A. Pitteka-pitteka, goraka. Oso balorazio positiboa egin dugu. Ikasle hauek bestelako ikasketak prozesu bat eskatzen dute. Gainera, Sakanan, haiek bertakoak izanda, hemengo ekoizleak, hemengo merkataritza... Iruditzen zaigu denok elkarrekin hori eginda, denondako askoz ere aberasgarriagoa da. Bai ikasleen ikasketetarako, bai irakasleen hezkuntzarako... Pentsatzen dut ekoizleendako ere oso aberasgarria izanen zela. **+guaixe.eus**

Burunkintoak kitto

18 urte bete dituzten kideko burundarrek igandean despeditu dituzte euren ospakizunak. Santa Ageda egunean hasi ziren Altsasun eta Olatzagutian. Eta asteburuan haiei batu zitzaizkien bakaikuarrek, iturmendiarrak, urdiaindarrak eta ziordiarrek. Burundako kintoek utzitako lekukoa hartzeko prest izanen dira dagoeneko Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizon eta Etxarri Aranatzen, ihoteekin batera ospatuko dituzte



Bakaikuarren segizioak kinto eskea larunbat goizean egin zuen.



Kinto gazte, kinto eta kinto zaharren artean kuadrilla ederra osatu zuten asteburuan Iturmendin.



Urdiaingo kinto segizioa domeka eguerdian zortzikoa plazan dantzatu aurretik. .



Ziordiko kintoek ere ez zuten kinto festa galdu nahi izan.

Moxorroak dantzan

Aitezarko jipoitua eta Landarra intzirika eta negar batean, ninia besotan zuela. Hala egon ziren Ihabarko ihoteetako pertsonaiak igande iluntzean. Nahiz eta akabera aitezarkoren erretzeak eta haren inguruko dantzak eman zion. Bi eguneko ospakizun beteak ekarri zituen inauteriak Ihabarrera. Ohi bezala, puska biltzea, erronda, bazkariak eta beste izan ziren.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaxe.eus

OSTIRALA 14

LAKUNTZA Errotik Sakana
parekidea.

Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. plana eratzeko parte hartze saioak: Mankomunitateko langileak. Izena ematea: berdintasuna@sakana-mank.eus.
10:00etatik 13:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitza.

ZUHATZU Arakilgo agenda
morea.

Volar dokumentalaren emanaldia eta protagonistekin solasaldia.
18:00etan, elkartearen.

ALTSASU Gazte agenda.

FIFA20 txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Euskaraldia 2020.

Zer egin dezakegu Altsasu euskaldunagoa izan dadin? Kike Amunarrizen hitzaldia.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira
kontzentrazioak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske
kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

OLAZTI Literatur solasaldia:

Nostalgia de la sangre Dario Correnti idazlearen liburua.
21:00etan, liburutegian.

ALTSASU 1917 gaurkotasunezko
filmaren emanaldia.

22:00etan, Iortia kultur gunean.

LARUNBATA 15

ALTSASU Gazte agenda.

Must try party games.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LAKUNTZA Nahiak Nahi eta
Alvaro Olanoren kontzertua.

19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 16

OLAZTI Ereñotzu-Listorreta
ibilbidea eginen du Sakanako
Mendizaleak taldeak.

07:00etan, plazan.

ZIORDIA Ziordia-Eginkobegia-

Gobazpi-Ziordia.

Altsasuko Mendigoizaleen irteera.
08:00etan, egoitzatik.

IZURDIAGA Arakilgo zuhaitzaren
eguna.

laz landatutako zuhaitzen zuzenketa.
10:00etan, plazan.

AIZKORBE Arakilgo zuhaitzaren
eguna.

Otamena, zuhaitz landaketa eta eskulan tailerra.
11:30etik aurrera, plazan.

LAKUNTZA Bingoa.

17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Lur eta Amets
euskarazko familiarterko filma.

17:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Gwilym Bowen Rhys
Galesko abeslariaren kontzertua.

19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU 1917 gaurkotasunezko
filmaren emanaldia.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU La deuda zineforum
filmaren emanaldia.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 17

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Pentsiodunen eta
Adinduen Koordinakundea.

12:00etan, plazan.

LAKUNTZA Errotik Sakana
parekidea.

Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. plana eratzeko parte hartze saioak: Herritarrak, elkarteak, guraso elkarteak... Izena ematea: berdintasuna@sakana-mank.eus.
17:00etatik 20:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitza.

ALTSASU La revolta de las urnes Dolors Gibert argazkilariaren eta
Carles B. Gordis kazetariaren erakusketa.

Otsailaren 5etik 16ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, Iortia kultur guneko erakusketa gelan.



JOKIN KALE

LAKUNTZA Jokin Kale artistaren erretratuen erakusketa.
Kale Txiki tabernan.

IORTIA KULTURA

ALTSASU Inauterien erakusketa. Ikastetxeetako LHko ikasleek
egindako lanak eta 2019ko Inauterietako lehen argazki lehiaketara
aurkeztutako argazkiak.

Otsailaren 18tik 28ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, Iortia kultur guneko erakusketa gelan.

ZORION AGURRAK



Antonio Gaya Pieras eta Maribi Andueza Ezkurdia
Bizitza guztia gure ondoan: zaintzen, babesten,
maitatzen. Asko maite zaituztegu!



Eneritz Fresneda
Arza
Zorionak politta! 9 urte
jada!!! Segi hain
langile eta alai! Denon
partez muxu haundi
bet

D **DEKOVEN**
N **NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta
muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako
mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ASTEARTEA 18

ALTSASU Inauterien erakusketaren mustutzea.

18:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU *El tiempo del vacío. Extraños sucesos en el Pirineo* liburuaren aurkezpena. Jokin Azketa idazlearekin.

19:00etan, Haritza tabernan.

ASTEAZKENA 19

UHARTE ARAKIL Mozorro tailerra.

18:00etan, Alondigan.

ALTSASU Euskarazko literatur solasaldia: *Gelditu zaitzte gurekin* Ana Galagon idazlearekin.

18:00etan, Iortia kultur gunean.

UHARTE ARAKIL Herrixka galduen dantza ikasteko ikastaroa.

19:00etan, Alondigan.

OSTEGUNA 20

ALTSASU 0-3ko ratioak jaitsi eta soldatak igo. Plataformak kontzentrazio zaratatsua deitu du.

18:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Bad boys for live film*.


19:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU *Dos días, una noche* filma.


19:00etan, Iortia kultur gunean.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 14




Larunbata, 15



Igandea, 16



Astelehena, 17



JAIOTZAK

- **Elia Marchin Artsemenka**, otsailaren 4an Ihabarren
- **Mikaela Girsan Spinu**, otsailaren 4an Olaztin
- **Maya Ariana Agirre Faragau**, otsailaren 9an Urdiainen

EZKONTZAK

- **Gorka Angulo Ansorena eta Miriam Legarra Urdiain**, ilbeltzaren 31n Iruztunen

HERIOTZAK

- **Mari Carmen Ginea Galbete**, otsailaren 6an Olaztin
- **Julia Sanchez Leo**, otsailaren 11n Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

LOKALA

ERRENTAN

Altsasun dugun bulegoa beste autonomo batzuekin partekatze prest dugu. Interesa baduzu jarri gurekin kontaktuan. Andoni 603 417 554

GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak galdu ditut Andia mendilerroan: Lizarragako tuneletik San Adrian baselizarako bide inguruan. Aurkitzen badituzu,

mesedez, deitu 627 139 661 tfnora.

LEHIAKETAK

Olaztiko inauteriko V. mozorro lehiaketa: Otsailaren 29an, larunbatean; gaia librea eta 14 urtetik gorakoentzat. Izen ematea lehiaketaren egunean bertan, futbito-ko pistan, eguerdiko 12:00etan. Oinarriak www.olazti.com webgunean.

12.elkar ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa mar-txan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta

gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

OHARRAK

Odol-emateak Olaztin: otsailaren 19an 17:00etatik 20:30ra, www.adona.es/eu.

Sei elkarterako boluntarioak: Sei elkarterak bakarrik dauden adingabe atzeritarrekin asteen bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartetan Iturmendin eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonotara hots egin dezake, edo gestion@asociacion-sei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntze-txearen eraikina zaharberitzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua de- nez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Sakana Trenaren alde AHtrik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txan-

dakatzuz eginen dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AEKren Itsasi eus-kaltegian duzu informazio guztia guztia.

www.iragarkilaburrak.eus



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Iruztun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📍 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

Martilek hiru urterako sinatu du Xotarekin

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xota taldeko kapitain irurtzundarrari 2023ko ekainera arte luzatu dio kontratua Xota klubak. Gaur, ostirala, Movistar Inter liderra hartuko du talde berdeak Anaitasunan, 21:00etan

Roberto Martilek bere bizitzako taldean jarraituko du beste hiru urtez. Xota klubak eta kapitain irurtzundarrak kontratua sinatu dute eta, horrela, 8 zenbakia duen atzelariak Osasuna Magna Xota taldean jarraituko du 2023 urteko ekainera arte. Roberto Martilek eta Xota klubeko presidente Tatono Arregik oso pozik zeudela aitortu dute. "Kontratua berritzeko negoziazioak ez zituen 16 segundo ere iraun. Garai zailak datoz, baina Roberto Martil kapitainak gurekin jarraitzea balore handikoa da taldearendako, eta ilusioa badugu" nabarmendu zuen Tatonok.

Izan ere, eta oraindik ofizialki konfirmatu ez bada ere, badirudi Eric Martel eta Dani Saldise jokalariek Movistar Inter talde-ira joango direla hurrengo denboraldian; jakina, bi baja horiek oso garrantzitsuak izango dira talde berdearendako. Ildo honetatik, Movistar taldeak fitxaketak egiteko moduak ez direla onenak izan aipatu zen prentsaurrekoan. "Lehen mailako areto futboleko arekak apurtu dira, eta ustez Interviu taldearekin fitxatu duten gure bi jokalariekin ez dugu aukerarik ere izan. Diruak ez du klasea ematen: klasea izaten da, edo ez da izaten. Talde bikaina da, bai-



Roberto Martil eta Tatono Arregi irurtzundarrak, prentsaurrekoan. JESUS AGUIRRE

na gauza bat predikatzen dute eta bestea egiten dute" aipatu zuen Tatonok Movistar Interri buruz. Hala ere, gaur, ostirala, Movistarreko zuzendaritzari harrera ona egingo dietela gaineratu zuen, "klub honek beti duen edukazio eta portaerarekin".

Imanolek jarraituko du gidari

Hainbat talderen aurrekontuak nabarmen hobetu diren bitartean -Levante, Cartagena, Valdepeñas...- Xotan zailtasunekin jarraitzen dute, beti bezala. Horregatik, garai gogorak datoz,

eta atzera ere taldeak bere burua "berrasmatu" beharko duela azpimarratu zuen Tatonok. "Xotan ongi zentratuta egon behar dugu, aurrekontuari begiratuta errealak ez diren gauzengatik borrokatzen ari garelako, eta gure aldagelak bulkatuta ekiten diogu borroka horri" nabarmendu zuen. Halaber, nahiz eta Imanol Arregi entrenatzaileak eskaintza garrantzitsuak izan, teknikari irurtzundarrak taldean jarraituko duela berretsi zuen bere anaia Tatonok. "Imanolek berrasmatu berde berria gi-

datuko du" adierazi zuen argi eta garbi. Halaber, Rafa Usin berritzeko lanetan daudela gaineratu zuen presidenteak, "hitzeko aurrekordio bat" dutela.

Roberto Martilek dio "ez dela Xotatik mugituko"

Roberto Martilek Xotak bera berritzeko egindako esfortzua eskertu zuen. "Klubak nire aldeko apustua egin du; 33 urte beteko ditut aurki, eta adin horrekin ez da erraza hiru urteko kontratua eskaintzea. Dena emango dut fisikoki bikain egon eta taldearen alde lan egiteko. Ni ez naiz Xotatik mugituko" adierazi zuen jokalariek.

Gaur Movistar Team liderra hartuko du Osasuna Magnak

Gaur, ostirala, Lehen Mailako ligako sailkapenean 6. postuan dagoen Osasuna Magna Xotak Movistar Inter liderra hartuko du Anaitasunan, 21:00etatik aurrera hasiko den partidari. Goi mailako partida, beraz, Imanol Arregiren taldearendako. Azkeneko jardunaldian Cartagenaren kontra 7 eta 6 galdu ondoren, liderraren kontra aritzeko gogotsu daude jokalariek berdeak. Halako hitzorduetan hazi egiten da Osasuna Magna Xota, eta kantxa faktorea alde, liderrari hozkada emateko prest dago talde irurtzundarra. Gaurkoa Klubaren Eguna izendatu du Xotak, eta, hortaz, Abonu Unibertsala ez duten bazkide eta babesleek euren sarrera erosi beharko dute, prezio merkeagoan.

Aste bete pasako epean hiru partida jokatu beharko ditu Imanol Arregiren taldeak: gaurkoa; asteazkenean, Levanteren kontra; eta otsailaren 22an, ostiralarekin, Viña Albali Valdepeñasen kontra, Valdepeñasen.

FUTBOL PREFERENTEA

18. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Arrotxapea - Lagun Artea	0-3
Etxarri Aranatz - Amigo	2-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Lakuntzako Lagun Artea	34
16	Etxarri Aranatz	15

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Lagunak - Etxarri (Barañain)

IGANDEAN

16:00 Lagun Artea - S. Miguel (Lakuntza)

Lagun Artea, lider berria

Lagun Arteak Arrotxapekoen defentsa akatsak bikain aprobetxatu zituen eta Ripak, Unai eta Yonatanek sartutako golekin 0 eta 3 irabazi eta lidergoa eskuratu zuen. Bestalde, Etxarrik dominatu zuen, baina Amigo izan zen markagailuan aurreratu zena. Gentzaren eta Quesadaren golekin 2 eta 3 gerturatu zen Etxarri, gogoz saiatu zen, baina Etxarrik galdu egin zuen eta egoera konplikatu dago taldea, azkena.

ERREGIONALA GIZONAK

18. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Gazte Berriak	3-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	46
11	Altsasu	16

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Doneztebe - Altsasu (Doneztebe)

Altsasuren garaipen ederra

Altsasuk Gazte Berriak taldea hartu zuen larunbat goizean. Ongi jokatu zuen Altsasuk; hasieratik dominatu egin zuen, baina Gazte Berriak aurreratu zuen. Imanol Lobok berdintzea lortu zuen eta beste bi gol sartu zituen, hat trick bikaina lortuz.

ERREGIONALA EMAKUM.

20. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasuk atseden jardunaldia zuen	

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Castejon	53
6	Altsasu	33

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAREN 23AN

18:30 Beti Kozkor - Altsasu (Lekunberri)

Altsasuk 6. postuari eutsi dio

Emakumezkoen erregional mailan 20. jardunaldia jokatu zen asteburuan, baina Altsasuk atseden jardunaldia zuen. Hala ere, 6. postuari eutsi dio talde gorritxoak.

Koparako Xotaren bideoa

ARETO FUTBOLA Martxoaren 5etik 8ra Lehen Mailako Areto Futboleko Espainiako Kopa jokatu da Malagan. Osasuna Magnak Barça izango du arerio final laurdenetan. Koparen aitzakiarekin, bideo berezia egin du talde berdeak, Osasuna Magna Xotaren eta Irurtzun herriaren arteko lotura goraiatzeko duena. www.xota.es web gunean dago ikusgai.



XOTA

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK. 11. JARDUNALDIA

IGANDEAN OLAZTIN

09:00	Lagun Artea 09 - Etxarri-Utzubar Tx.
10:00	Etxarri Danbolintx. - Sutegi A
10:50	Etxarri-Epele - Sutegi 1
11:40	Lagun Artea 08 - Etxarri-Hartzabal
12:30	Betelu - Altsasu B
13:20	Altsasu C - Altsasu A

BENJAMINAK. 6. JARDUNALDIA

IGANDEAN ETXARRI ARANATZEN

10:00	Altsasu B - Etxarri Aranatz
11:00	Aralar Mendi - Betelu
12:00	Altsasu A - Sutegi
13:00	Altsasu C - Urdaian

ELOMENDI TXAPELKETA

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Unziti - Zaldua 5-2

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1	Barasoain	39
2	Zaldua	34

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Z/G Zaldua - Barasoain (Lekunberri)

Zalduak bolada ona eten zuen

Zalduak Unziriten kontra galdu egin zuen. Bihar Barasoain liderra du aurkari.



Naiara Diez, jokoa. GERNIKA LOINTEK

SASKIBALOA Diezen Gernikak Valentzia aurkari EuroCupean

Naiara Diez saskibaloia jokalaria altsasuarra kapitain duen Lointek Gernika Bizkaia EuroCup Txapelketako joaneko partida jokatuko du asteazkenean, otsailaren 19an, 20:00etan, Valencia Basket Club taldearen kontra. Partida etxean jokatuko dute, Malosten, eta inoiz baino gehiago, Marea Granatearen babes eskatu du taldeak. Hain zuzen ere, Emakumezkoen LF Endesa Ligako azken jardunaldian, Gernikak Valencia hartu zuen, eta partida oso lehiatua, azken uanean Dietrickek egindako hiruko saskiratze bati esker 91 eta 89 gailendu ziren gernikarrak. Hortaz, asteazkeneko partida ere bihotzekoa emateko modukoa izango dela aurreikusten da.

54,40 metroko jaurtiketa, 55 metrokoa helburu

DISKO JAURTIKETA June Kintanak diskoa 54 metro pasara jaurti zuen larunbatean Leonen. Hurrengo saioetan 55 metroko jaurtiketa egiten badu, martxoan Portugalen jokatuko diren Europako Kopan parte hartzeko aukera izango du bakaikuarrak

Larunbatean Espainiako Atletismo Federazioak jaurtiketa luzeen kontrol saio bat burutu zuen Leonen. June Kintana Larraza bakaikuarra (Grupompleo Pamplona Atletico) emakumezkoen disko jaurtiketan aritu zen eta kilo bateko diskoarekin bikain moldatu zen. Berak egin zuen denborarik onena: 54,40 metrora jaurti zuen diskoa. Bere atzetik Ines Venero (Alcampo Scorpio) sailkatu zen, 47,67 metroko jaurtiketarekin. “Espainiako Atletismo Federazioak antolatzen du proba hau, kontrol moduko bat, eta bide honetan noa” adierazi digu Bakaikuko disko jaurtitzaileak.

Castellon eta Motril

Hurrengo proba otsailaren 29an izanen du June Kintanak, Castellonen. “Espainiako Atletismo Federazioak antolatutako beste kontrol bat da, martxoaren 7an Granadako Motrilen Espainiako Neguko Jaurtiketa Luzeetako



June Kintana Larraza, pentsakor, aurreko txapelketa batean. FEDERAZIOA

Txapelketa jokatuko baino lehen. Eta proba hauetan Europako Jaurtiketen Kopara joan ahal izateko gutxienekoa lortzen badut, 55 metroko jaurtiketa, martxoaren 21ean eta 22an Portugalera joango naiz Espainiako Selekt

CASTELLONEN ETA MOTRILEN 55 METRORA IRITSI NAHI DU, EUROPAKO KOPAN ARITU AHAL IZATEKO

zioarekin, Leirian jokatuko den Europako Jaurtiketen Kopan aritzera” gaineratu du Bakaikuko atletak. Heldu diren egun horietan, beraz, 55 metroko gutxieneko jaurtiketa egitea da bakaikuarraren erronka.

Euskal Herriko eta Nafarroako txapelduna da

Otsailaren 2an Euskadiko eta Nafarroako Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatuko zen Gasteizen. June Kintana maila absolutuan gailendu zen, 48,30 metroko jaurtiketarekin, Catalunya taldeko Andrea Alarconen aurretik (44,57 m). “Irabazi nuen, baina markarekin ez nintzen oso kontentu geratu. Dena den, Leongo kontrolean nabarmen hobetu nuen denbora, 54,40 m, eta Europako Kopan aritu ahal izateko minitok, 55 metrotik gertu nago” aipatu digu Kintanak. Juneren markarik onena 56,30 metrokoa da (2017, Europako 23 urtez azpiko txapelketa, Polonia), eta joan den urtean egin zuen markarik onena 55,72 metrokoa izan zen, Zaragozan.

2019ko irailean Aire Zabaleko Espainiako Atletismo Txapelketa irabazi zuen June Kintanak, emakumezkoen disko txapelketa maila absolutuan (54,56 m). June Kintana bakaikuarrak Leonen jarraitzen du, Espainiako Atletismo Federazioko Teknikazio Zentroan trebatzen eta, aldi berean, albaitaritza ikasketak egiten.

X. Altsasuko Duatloirako izena ematea zabalik dago

DUATLOIA Martxoaren 28an jokatuko da proba, eta Nafarroako Triatloi Federazioan eman behar da izena

Otsailaren 2an Tuteran jokatutako Duatloi Krosarekin hasi zen aurtengo duatloi denboraldia. Igandean Valtierra Duatloia jokatuko da, otsailaren 22an eta 23an Bianako Printzerriko Duatloia, otsailaren 23an Irati-Abodi Triatloi Zuria, Nafarroako Neguko Triatloi Txapelketa izango dena, martxoaren 1ean Lizarrako Duatloia, martxoaren 7an Basaburuako Duatloia, martxoaren 15ean Arangurengoa... Sakanan antolatzen diren probei dagokienez, bata bestearen segidan izanen dira. Arbizuko

duatloia martxoaren 21ean jokatuko da eta Altsasuko Duatloia, aldiz, martxoaren 28an.

Arbizukoa martxoaren 21ean eta Altsasukoa 28an

Arbizuko Udalak antolatzen du Arbizuko Duatloia. Martxoaren 21ean jokatuko dela baieztatu digute, eta aurki zabalduko dela izena ematea.

Bestalde, Altsasuko Duatloia Sakanako Triatloi Taldeak prestatzen du, hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin, eta martxoaren 28an jokatuko da.



Sakana Triatloi Taldeko kide batzuk, 2019ko Altsasuko Duatloian aritzeko prest.

Goizeko 10:30ean Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak diren kategoria txikikoen probak jokatuko dira Txioika ikastolaren inguruetan. Lehenik eta behin aurre-benjaminak ariko dira, eta segidan benjaminak, kimuak eta

haurrak. Kadeteek eta juniorrek arratsaldean Altsasun jokatuko den helduen proban parte hartuko dute eta helduen distantzia bera egin beharko dute (5 km korrika, 22 km bizikletan eta 2,5 km korrika).

Altsasuko Duatloiko proba nagusian, emakumezkoak irten-go dira lehenik eta behin, 15:45ean. Gizonezkoen irteera 15:51ean izango dela aurreikusten da, eta erreleboen kategorian parte hartuko dutenena, aldiz, 15:52ean.

Izena ematea zabalik martxoaren 23ra arte

X. Altsasuko Duatloian izena ematea zabalik dago Nafarroako Triatloi Federazioaren web orrian (www.navarratriatlon.com), martxoaren 23ko 23:59 arte. Kategoria txikietan ariko direnendako, dohainik da izena ematea. Helduen kategorian, aldiz, federatuek 22 euro ordaindu beharko dituzte, federatu gabekoei 26 euro, eta juniorrek eta kadeteek, aldiz, dohainik dute parte-hartzea. Proban aritzera animatu du Sakanako Triatloi Taldeak.

Maidar Betelu ETXARRI ARANATZ

Asier Urkia Ijurrak fisioterapeuta ikasketak egin zituen unibertsitatean, Vic-en (Bartzelona). 2010ean bukatu zituen, eta berehala Altsasuko Josefina Arregi Klinikatik deitu zioten. Hor hasi zen fisioterapeuta lanetan. Osasunbideako zerrendetan sartu eta ospitaletan lanean aritu zen. Baina kirol munduak erakarrita, goi-errendimenduko kirolarien inguruko master batzuk egin zituen eta gutxika Osasuna futbol klubeko fisioterapeuta izatera iritsi zen.

Zenbat urte daramatzazu Osasan?

Uste dut 5 urte eramango ditudala. Txikitik atletismoan eta futboleant aritu nintzen, Etxarrin, herriko taldean. Osasunbidean lanean nengoela, Etxarri eta Lakuntzako Lagun Artea futbol taldeetan fisioterapeuta aritu nintzen. Osasunatik deitu zidaten, norbaitek taldea utzi eta ea bertako fisioterapeuta izan nahi nuen. Eta horrela hasi nintzen. Osasuna klubeko osasun-zerbitzuko langilea naiz.

Jakina, Osasuna taldeko zaletua izango zara (kar, kar...).

Bai, jakina... txikitatik aitarekin Sadarrera asko joan izan gara partidak ikustera, baita Anoetara, Errealekoak ikustera eta baita San Mamesera ere.

Igandean Real Madrilen kontra aritu zen Osasuna eta 1 eta 4 galdu zuen. Ongi aritu ziren gorritxoak, baina talde handi hauek edozein unetan jokaldiak atera eta gola sartzen dute...

Osasuna sailkapenean erdialdean dago eta horrek konfiantza ematen dizu, beste animo bat. Igandean taldea ongi ikusi nuen, Jagobak ongi planteatu zuen partida. Geldikako jokaldi batean aurretik jarri ginen, baina zuk esan duzuna, azkenean Real Madrilek eta halako talde handiek zuk egindako akats txikiak ez dituzte barkatzen eta berehala buelta eman ziguten. Aukerak izan genituen, ongi jokatu genuen, baina beste bi huts egin genituen eta, azkenean, garesti ordaindu genuen.

Sergio Ramosek Ruben Garciari egin zion sarrera ikusi zenuenean zer pentsatu zenuen?

Momentuan ez genuen ikusi, gu geunden tokitik urruti gertatu zelako. Partida bukatuta Rubenek erakutsi zizkigun argazkiak eta orduan ikusi genuen.

Partidak zein begirekin ikusten dituzu, fisioterapeuta zaren aldetik,

"Sadarren beti animatzen dute, berdin du 1. edo 2. mailan egon"

ASIER URKIA IJURRA OSASUNA FUTBOL KLUBEKO FISIOTERAPEUTA

FUTBOLA Fisioterapeuta etxarriarrak 5 urte daramatza Osasan. Taxoareko ateak ireki eta Osasunaz, futbolarien eta bere egunerokoaz eta txutxumutxuez aritu gara



Asier Urkia Ijurrak bost urte inguru daramatza Osasunako fisioterapeuta. OSASUNA

hau da, zure jokalariei egindako sarrerak eta haien mugimenduak ikusten, hala zaletu zaren aldetik?

Bankilloan eserita zaudenean ezin duzu zale baten moduan jokatu, bestela, epaileak kalera-tu zaitzake, ezin baituzu hitz egin. Beste modu batera ikusten da, gu lanean ari garelako. Jokalari bat maiki ikusten duzula, besteak eskua gerrialdera asko ematen duela, edo hankara... beti adi egoten gara, ahal den azkarrena ibiltzeko. Txip horrekin.

Osasunako teknikarien taldean, staffean, 15 kide zaudete: entrenatzailea, entrenatzaile-laguntzailea, atezainen entrenatzailea, prestatzaile fisikoak, medikuak, fisioterapeutak, nutrizionista, utillero edo tresnazaina... guztiak koordinatuta egiten duzue lan?

Staffean 15 gara eta zaila da guztiak batuta egotea, baina bilera asko egiten ditugu. Osasun-zerbitzuan egunero biltzen gara fisioterapeutak eta medikuak, futbolariak partida edo entrenamendua nola bukatu duten ikusteko eta jokalari jakin batzuk nola dauden ikusteko. Gero medikuak entrenatzaileekin edo prestatzaileekin egiten dituzte

"PARTIDAK FISOEN BEGITIK IKUSTEN DITUGU: HURA MAIKI DAGOELA, BESTEA MINBERATUA..."

lerak, gurekin hitz egin duena bideratzeko. Koordinatuta gaude. Medikuek dira fisioterapeuten nagusiak.

Nolako da zure egun normal bat?

Osasunak Taxoaren entrenatzen du egunero, eta goizeko 9:00etan han egon behar dugu. Denok batera gosaltzen dugu bertan, eta gero eguneroko lanekin hasten gara. Ohatiletara joaten gara, futbolariaren batek entrenatzeko bendajeren bat jarri nahi badu, entrenatu aurretik pixka bat berotzeko masajeren bat nahi badu, edo berotzeko makinak erabili nahi baditu... Futbolariak entrenatzera ateratzen direnean, gutako fisioetako bat zelaira ateratzen da, zer edo zer gertatzen bada prest egoteko, eta besteak barruan egoten gara, lesionatuta daudenekin gimnasioan edo ohatiletan ariketak edo tratamendua egiten. Eta entrenamendua bukatzen denean masajeak ematen dizkiegu futbolariari, hurrengo egunerako errekupe-ratzeko.

Eta partida bat dagoenean?

Partida arratsaldean bada, goizean gehienetan jai edukitzen dugu partida etxean bada. Bestela, bidaiatzen gaude. Gu bi ordu lehenago joaten gara futbol zelaira. Jokalariak iristerako guztia prest dugu. Jokalariei behar dutena eskaintzen diegu: batzuk txorkatilik bendatzen dituzte partidarako, beste batzuk masajea hartzen dute berotzeko... zelaira berotzera ateratzen direnean, gu ere ateratzen gara eurenkin. Eta partida hasten denean bankillora, han adi egon eta behar bada norbait atenditu. Partida bukatzerakoan batzuek masajea hartzen dute, edo kolperen bat badute hotza jarri... Partida bukatu eta ordu bete edo egoten gara oraindik aldagelan, azkena joan arte.

Nolako harremana duzu futbolariekin? Ohatilik emango dute eurekin hitz egiteko tarte. Zertaz aritzen zarete?

Gehienetan asko hitz egiten dugu, giro oso ona dugu. Futbolari asko nire adin ingurukoak dira eta harreman oso ona dugu, finean egunero egoten garelako. Zertaz? Atzoko partidaz, datorrenaz... askori mendia gustatzen zaie, mendiko ibilbideez aritzen gara... denetarik.

Gure txokoak gomendatuko dizkizu (kar, kar...)

Bai (kar, kar...), jokalari dezente eta Jagoba Arrasate entrenatzaile

lea asko egon dira hemen, Berai-nera igotzen, esaterako. Hemen-
dik ibiltzen dira, bai.

Futbolariak gizartean gertatzen de- naren jakitun dira?

Azkenean ematen du beste mun-
du batean bizi direla, baina Osa-
sunakoak, behintzat, normalak
dira, oso gertukoak, eta hemen
gertatzen diren gauza guztiez
dakite eta asko gainera.

Norekin duzu harreman gehien?

Guztiekin harreman ona dugu,
baina etxeko jokalariekin akaso
gehiago, Unai Garcia, Oier, Ro-
berto Torres... denbora gehiago
daramazulako beraiekin. Egun
taldean ez dauden jokalarari ba-
tzuekin hizketan jarraitzen dut.

Endika Irigoien urdiaindarrak dago jokalarien artean.

Bai, Osasuna Promesasen ari da,
partida guztiak jokatzen, bertako
kapitaina da... oso ondo ikusten
dut; ea zorte pixka bat duen, sal-
toa eman eta talde nagusian gel-
ditzen den.

Osasunak duen altxorretako bat zaleak dira. Sekulako afizioa da Osasunarena. Astero nabaritu- koak duzue gorritxoaren babes- a.

Zelai guztiak zapatzen ditugu,
baina azkenean etxeko partidak
bereziak dira. Uste dut Osasuna-
koak bezalako zalerik ez dagoela;
partida guztietan zelaia betetzen
da, partida guztietan asko anima-
tzen dute eta kanpotik Osasuna-
ra datozen jokalariek ere harri-
tuta geratzen dira. Zer zalegoa
dagoen, zenbat interes duten,
kalean ere nola gelditzen dituzten
eta zeinen ondo zaintzen dituzten...

Zeintzuk dira, zuretzat, lehen mai- lako futbol instalaziorik onenak?

San Mames eta Reale Arena dira
gehien gustatzen zaizkidanak,
baita barrutik nola dauden eginak
ere. Eta Atletico de Madril
Wanda Metropolitanarene. Hiru
horiekin geratzen naiz. Bernabeu
eta Nou Camp oso handiak dira,
baina barrutik gehiago gustatzen
zaizkit beste hirurak. Osasunak
Sadarren handitzea egiten due-
nean, ematen duenez zelai polita
geratuko da. Zale gehiago sartu-
ko dira, hori da garrantzitsua.
**Chimy Avila jokalaririk karismatikoa
da, izugarri erakartzen du. Bera
lesionatu izana kolpe latza da Osa-
sunarendako. Zer moduz dago?**

Halako jokalariek hemen estima-
tuak dira: bere karisma, indarra,
izaera, jokatze modua... Eba-
kuntza egin eta gero, ondo dago,
errekuperazioan hasi da buru-
belarri. Ongi joango da ziurrenik;
ongi lan egiten du Chimyk.



Asier Urkia, ezkerrean, Chimy Avila lesionatu zenean, jokalaririk argentinarrari babesa ematen. LALIGA

Halako lesio serioak daudenean zuendako ere gogorra izango da.

Lesio gogorak izan ditugu: Miguel
Flaño, Javier Flaño, Tanok ere
tibia eta peronea hautsi zituen,
aurten denboraldi hasieran Kike
Barja lesionatu zen, Unai Garcia,
Chimy... Lesio handia dutela ja-
kitun direnean beraien aurpegia
ikusteak tristura ematen dizu. 6
hileteztik geldirik egotea jokalaririk
batendako asko da, beste bat sar-
tzen da zure ordeztu eta ez dakizu
bueltatzen zarenean jokatze-
tokia izango duzun edo ez. Beraien
lana da, eta asko sufritzen dute.

Elite mailako kirolean gorputzari halako egurra ematea, lesioak... hori gorputzarendako ez al da gehiegitxo?

Kirola egunero egiten dute, baina
prestatzaile fisikoek bere lana
ongi egiten dute. Badakite zein
egunetan zenbat ariketa sartu,
gehiago edo gutxiago. Egia da
futbola utzi ondoren belaunak
asko sufritzen dutela, baina beno,
gaur egun jokalaririk gero eta
sasoitsuago eta sendoago daude,
eta hori hobeto eramaten dute.
**Osasuna 2. mailatik 1. mailara igo
da. Sadarreko giroa aldatu da edo
berdina izaten jarraitzen du?**

"FUTBOLARIK BESTE MUNDU BATEKOAK DIRELA EMATEN DU, BAINA OSASUNAKOAK OSO NORMALAK DIRA"

Ni Osasun nagoenetik 1. mai-
lara igo ginen, gero 2. mailara
jaitsi ginen, eta ia 1. mailara igo
ginen berriz, eta urte hauetan
guztietan Sadarren giro berbera
egon da, eta aldageletan ere bai.
Sadar beteta egoten da eta berdin
animatzen dute 1. edo 2. mailan.
**Sailkapenean 12. postuan dago
Osasuna; 1. mailari eusteko helbu-
ria nola ikusten duzu?**

Denboraldi ona egiten ari dira
jokalaririk. Igo berri den talde bat
gara, eta 23. jardunaldian 28 pun-
turekin jaitsiera postuetatik 10
puntura egotea nik uste dut ongi
dagoela. Itxura ona dauka, baina
han dago maiatza eta salbatze-
lan asko egin beharra dago.

Badirudi Jagoba Arrasatek eta bere taldeak Osasunara iritsi zirenetik asmatu dutela. Tekla egokia jo dute.

Entrenatzaile bakoitzak bere jo-
katzeko modua ekartzen du eta
egia da Jagoba etorri aurretik
igual ez genuela orain dugun
izaera erasotzaile hori. Hori da
Jagobaren joko: atzean ondo
egon, baina beldurrik gabe gora
joan. Eta hori da, nik uste, Sada-
rri gustatzen zaiona. Modu hor-
rretan ongi joan zaigu eta ongi
goaz; nik uste dut asmatu duela,
eta horrela jarraituko du Jagobak,
**Taxoaren euskara entzuten da, eus-
karaz aritzen zarete?**

Jagoba eta bere taldea etorri de-
netik gehiago aritzen gara eus-
karaz. Jagobak eta Alkizak eus-
karaz dakite, Richard Sanzol

atezainen entrenatzaileak, Borja
Oreja fisioak eta Juantxo Marin
prestatzaile fisikoak ere.. Joka-
lariek ere gehiago hitz egiten dute
euskaraz, entrenatzaileek bada-
kitelako. Unai, Oier, Kikek...eus-
karaz hitz egiten dute eta guk
gure artean ere bai. Nabaritu da.
**Aurten Euskal Herriko 5 taldeetako
entrenatzaileak guztiak euskaldunak!**
Gutxitan ikusiko da, bost euskal-
dun taldeek entrenatzaileak ber-
takoak eta euskaldunak izatea.
**Zein harreman duzue Euskal Herri-
ko gainontzeko taldeekin?**

Errealeko fisioekin harreman
gehiago dugu aurten partida
gehiago jokatu ditugulako, lagu-
nartekoak eta, baina besteekin
ere harreman onak izaten ditugu.
Aurkakotasuna zelaian gelditzen da.
Bai, harreman ona dugu, berta-
koekin eta edozeinekin. Jokalaririk
laguntzeko gaude, eta zelaian
dagoen edozein jokalaririk edozer
gertatuta ere, beti esku bat bota-
tzeko prest, denok pertsonak
garelako. Hori ez da aldatu behar.
**Lehen mailan puntako izarrak ger-
tu ikusiko dituzu. Zure idoloren bat
ikusita ez duzu aprobetxatu kami-
seta edo zerbait eskatzeko?**

"FISIOTERAPEUTEN LANA LAGUNTZA EMATEA DA; NIK BETI BIDE HORRETATIK ENFOKATU DUT"

Hasierako urteetan ikusmin gehia-
go duzu, baina, finean, zure tal-
deko futbolariak gertu ikusten
dituzu eta hemengoendako izarrak
dira, baina zu egunero egoten
zara beraiekin eta horrek dena
normalizatzen du. Lagunak dira
idolo baino. Haurrek jokalaririk
horiek ikusterakoan zein aurpe-
gi jartzen duten, horrek betetzen
zaitu. Beraiekin geratzen zara.

Futbolariak guk uste baino norma- lagoak izango dira.

Askotan galdetzen didate: hau
nolakoa da? Bestea nolakoa? Fa-
milia dute, seme-alabak ikaste-
txera eramaten dituzte gainon-
tzeko bezala, parkeetara doaz...
oso pertsona normalak dira.

Messi ikusi zenuen lehenengo aldiz zer pentsatu zenuen...

Lehenengo han ikustea tokatu
zitzaidan eta inpresionatzen du
pixka bat. Aldagelan gainontze-
koekin barrez eta hitz egiten
egoten dira, baina, egia esan,
lehenengo egun horietan pixka
bat inpresionatzen dizu.

Zure lana familiarekin nola uztartzen duzu?

Futbolak duena da asteburuetan
lan egiten dugula, baina astez
arratsaldeak libre ditugu, alaba-
rekin eta familiarekin egoteko.

Zure bizitzako lana da hau?

Txikitan beti korrika eta futbole-
an aritu izan naiz, eta behar izan
dudanean fisioterapeutengana jo
izan dut; beti gustatu izan zait
euren lana, kirol munduan lagun-
tzeko lana delako. Eta nik beti
bide horretatik enfokatu dut. Lan
hau oso gustukoa dut, eta Osasu-
nan jarraitzea gustatuko litzai-
dake. Lehen mailako talde batean
lan egiten dugu, baina gurea bi-
zimodu normala da. Egia da par-
tida ondoren jendeak gehiago
galdetzen dizula: "hau nola dago,
atzoko partida nola joan zen..."
baina gu ez gara inor, ez gaitu
inork ezagutzen. Jokalaririk taba-
rra gehiago emango diete, baina
gurea oso bizimodu normala da,
eta bizimodu ona, esango nuke.

Baina taldearekin autobusetik jais- terakoan, zaleen txaloez inguratu- ta, edo 1. mailara igo zineteneko ospakizunekin, oilo-ipurdia jarriko zaizu, ez?

Hori bizi beharra dago, ez da eze-
rekin ordaintzen. 1. mailara igo
ginen eguna, Gaztelu plaza eta
Iruñeko udaletxe ospakizunak...
barrutik bizi behar dituzu, bes-
tela zaila da esplikatzea. Ea heldu
den urtean lehen mailan gauden
berriro!



Mendizaleen irteera bat. ARTXIBOA

MENDIA Ereñotzu-Listorreta, Sakanako mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak prest dauka otsaileko irteera. Hernani eta Errenteri aldera joko dute, Ereñotzitik abiatu eta Listorretaraino buelta egiteko. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Olaztitik, eta buelta arratsaldean egingo dute mendizaleek. Ohiko tokietan eman beharra dago izena. Bestela, 639 117 631 telefonora deitu eta bertan eman daiteke izena.

SASKIBALOIA CBASK-Jatormanek San Cernin irabazi zuen

Nafarroako eta Errioxako taldeak lehiatzen diren Gizonezkoen Autonomien Arteko 2. mailan, 16. jardunaldia jokatu zen. CBASK-Jatormanek San Cernin taldea izan zuen aurkari ostiralean Zelandin, eta bikain aritu ziren altsasuarrak, 14 puntuko aldearekin gailendu baitziren, 76 eta 62. Saikapenean, Club Baloncesto Cenicerio talde errioxarrak berreskuratu du lidergoa (31 puntu) eta CBASK-Jatorman 12. postuan dago (21 puntu). Larunbatean CBASK-Jatorman taldeak 22 punturekin saikapenean 10. postuan dagoen eta arerio zuzena den Aranguren Mutilbasket izango du aurkari, 20:00etan, Aranguren kiroldegian.

Emakumezkoetan, Nafarroako Kadeteen 2. mailako A Saikapen-Gurutzaketa faseko 2. jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan. Mendillorri taldeari 73 eta 22 irabazi zion CBASK saskibaloitalko taldeak. Beraz, garaipenaren bidean segi eta txapelketan aurrera egin du talde altsasuarrak.



Jon Ander Albisu, Unai Laso, Joseba Ezkurdia eta Julen Martija, asteazkeneko material aukeraketan. BAIKO

Ezkurdia eta Martija, irabaztera

PILOTA Binakakoan bigarrenak sailkatu eta finalerdietara zuzenean pasatzeko Lasoren eta Albisuren kontra irabazi nahi du gaur biko sakandarrak. Jaka eta Zabaleta finalerdietarako sailkatu dira jada, baina garaipenaren bidean segi nahi dute

Binakako Pilota Txapelketan emozioak ez du huts egiten, eta beste jardunaldi interesgarri baten aurrean gaude pilota zaleok. Hasierako ligaxkako 13. jardunaldia jokatu da asteburuan, eta oraindik asko dago jokoan.

Erik Jakak eta Jose Javier Zabaleta liderrek Olaizola II.ari eta Aranguren 17 eta 22 irabazi eta gero, euren 10. puntua lortu zuten eta finalerdietarako sailkatu dira, baina beste hiru bikoak zein izango diren zehaztea falta da. Joseba Ezkurdiak eta Julen Martijak hanka eta erdia baino gehiago sartu dute finalerdietan. Aurreko jardunaldian Artola eta Imaz arerio zuzenei Tafallan 22 eta 10 irabazi ondoren, euren 8. puntua lortu zuten eta bigarrenak dira saikapenean. Euren arerio zuzenek, Artola-Imazek eta Altuna-Ladis Galarzak, zazpina puntu dituzte. Atzetik, oraindik ere aukerakin daude Laso eta Albisu, 6 punturekin, eta Irribarria eta Rezusta, 5 punturekin. Olaizola II.a-Urrutikoetxeak 4

puntu dituzte eta Bengoetxea-Mariezurren puntu bakarra.

Jaka eta Zabaleta liderrek txapelketako bikote sendoena izaten jarraitzen dute. Finalerdietarako sailkatuta daude, baina euren maila ematen eta sentsazio bikainei eusten jarraitu nahi dute. Bihar, larunbata, Labriten, Bengoetxea ordezkaturako duen Victorren eta Mariezkurrenaren kontra irabaztera aterako dira (17:45, ETB1). Printzipioz liderrek dira faboritoak, baina Victorrek eta Mariezkurrenaren itxura ona eman nahi dute, joko hobetu, eta partida polita aurreikusten da Labriten.

Sakandarrek gaur lotu nahi dute bigarren postua

Ezkurdiak eta Martijak, aldiz, partida erabakigarria dute gaur, ostirala, Urdulizen, Lasoren eta Albisuren kontra (22:00, ETB1). Binakako bigarren postuari heletzea eta bigarrenak sailkatzea, hori da Ezkurdiaren eta Martijaren helburua, postu horrekin

finalerdietara zuzenean sailkatuko liratekeelako eta 3. eta 6. postuen arteko play-offak ekingo lituzketelako. "Bigarrenak sailkatzeko aukera izanda, orain pena litzateke hirugarrenak gelditzea. Faena errematatu beharra dugu, finalerdietarako zuzenean sailkatzeko" azaldu zuen Ezkurdiak asteazkeneko material aukeraketan. Iritzi berberekoa zen Martija. "Irabazi beharra dugu, bai ala bai, bigarrenak sailkatzen saiatu beharra dugu" gaineratu zuen Etxeberrikoak.

Materialaren inguruan ez zen kezarik egon. "Ez dago inolako kezarik, ez da materiala geldoa" adierazi zuen Martijak. "Pilota onak dira, materiala gustatu zait" berretsi zuen arbizuarrak.

"KANTXA ONGI BETE BEHARKO DUGU. ATZEAN ONGI EUTSI ETA AURREAN OLKARKOR ARITU"

Bikote bikaina osatzen dute sakandarrek, eta hitz onak dituzte batak bestearekiko. Ezkurdiaren iritziak, Julen "txapelketa bikaina" egiten ari da. "Julenekin bikotea egitea oso erraza da. Pilotari osoa da, kantxan ongi kokatzen da, buruz oso azkarra da... partida gehiago jokatu, geroz eta gehiago ezagutzen dugu elkar eta gehitu egiten dugu bikote gisa, hobeki ulertzen dugu elkar" nabarmendu zuen Ezkurdiak igandeko partida bukaturik eta gero. Martijak Josebak "asko laguntzen diola" nabarmendu zuen. "Oso gustura nago berarekin jokatzeko, ezin naiz kekatu, asko laguntzen nau".

Erritmoari eutsi

Azkeneko partidetak erritmoari eustea da gakoa Ezkurdiaren ustetan. "Orain arte egindakoarekin jarraitu beharra dugu: kantxa ongi bete, lehiakorrak izan, eta aurrean pilota dudanean, oldarkorra izan". Igandean Tafallan egindako lanarekin gustura geratu zen arbizuarrak. "Azken hiru partidetan sufritu nuen, ongi defendatzen kontzentratu nintzen eta gaur, aldiz, hobeki sentitu naiz, txispa gehiagorekin. Bidea hau da, ea horrela segitzen dugun, eta ea zuzenean goazen finalerdietara" adierazi zuen. Julenek ere horrela ikusten du. "Ostiralean Lasoren eta Albisuren kontrako partida oso gogorra espero dut. Partida ongi hasten eta ahalik eta akatsik gutxien egiten saiatuko gara. Eta nik atzean ongi eusten saiatuko naiz" gaineratu zuen.

Binakako ligaxka despeditzeko bi jardunaldi geratzen dira. Beraz, saikapeneko bigarren postuari eusteko bi aukera dituzte sakandarrek, baina gaur bertan lotu nahiko lukete guztia. "Gaur bada, hobe. Horrela, finalerdia prestatzeko denbora gehiago genuke" dio Ezkurdiak. Martija jakitun da une gozoan daudela, baina ez du konfiantza gehiegirik izan nahi. "Askotan gertuenean zaudenean presio gehiago duzu. Azken jardunaldietan bezala jokatzeko kontzentratu beharra dugu, partida on bat egiten".

Gainontzeko partidei dagokienez, gaur, ostirala, Gernikan, Artola eta Imaz Altunaren eta Ladis Galarzaren kontra ariko dira (20:00) eta igandean, Tolosan, Irribarriak eta Rezustak Olaizola II.a eta Urrutikoetxea izanen dituzte arerio (17:00, ETB1).



Gwilym Bowen Rhys musikaria. KRISTINA BANHOLZER

Galesko herri doinuak, letrak eta kantak Irurtzunen

Gwilym Bowen Rhys musikariaren kontzertua izanen da igandean, 19:00etan, Irurtzango kultur etxean

IRURTZUN

Galesez abesten du Gwilym Bowen Rhys kantautoreak. Bere "herriko" hizkuntzan abesten hasi zen txikia zenetik. Gaur egun, doinu tradizionalak eta gaur egungoak uztartzen ditu, baina beti ere bere arbasoen hizkuntza ahaztu gabe. Etzi, igandean, 19:00etan eskainiko du Irurtzango kultur etxean. Elidyr Glyn musikariarekin ariko da.

Lehenengo diskoa 2016an ateratu zuen Bowenek. *'O Groth y Dadler* deitutakoa, oso gazte zela. Orduetik, arrakastatsua izan da

bere ibilbidea, izan ere, gales hizkuntzan kaleratutako disko hoberenaren saria irabazi zuen.

Galesko abeslari hoberena

Abesti eta doinu berriak proposatzen dituen arren, garai bateko eta tradiziozko Galesko kanten antza handia dute Bowenek abestiek. Izan ere, abesti tradizionalen eta zaharren doinuak eta letrak hartzen ditu eta eraldatzen ditu. Iaz Best solo artist wales folk award edo Galeszko abeslari bakarlarari hoberenaren saria irabazi zuen. Musikaria ez ezik, Bowen poeta ere bada.

'Lur eta Amets' marrazki bizidunak Altsasun

Euskarazko filmaren emanaldia izanen da etzi, igandea, 17:00ean, Iortia kultur gunean

ALTSASU

Lur eta Amets anai-arrebak dira eta amonaren etxera doaz aste-buru pasa. Amona pixka bat berezia da eta botereak ditu. Botere horiek Euskal Herrian zehar eta garai desberdinetan bidaiatzeko aukera ematen die. Historiak pasarte desberdinetan hainbat abentura biziko dituzte Lurrek eta Ametsak. Izan ere, Miren Berastegi Lotura filmseko kideak azaldu duen bezala, "abentura" film bat da. Igandean, otsailaren 16an, 17:00etan, Iortia kultur gunean.

Pelikula bat izan aurretik, *Lur eta Amets* hainbat ipuin eta kontsulta liburu ziren. Istoriek izan zuten arrakasta zela eta, pelikula bat egiteko interesa sortu zen, eta momentu horretan Lotura films proiektuan sartu zen 2015ean. 2017. urtean hasi ziren filma ekoizten, eta aurreko astean, otsailaren 7an, mustu zuten. Aste bat beranduago iritsiko da marrazki bizidunetako filma Sakanara. Estreinatuta berria.

Filma haurrak historiara gerturatzeko edo "jakin-mina sortzeko" modu bat da.

Desioak eta nahiak "beharrezkoak" dira

Nahiak Nahi taldeak kaleratu berri du 'Jarrera bidea da' diskoa. Nafarroako Antzerki Eskolan aurkezpena egin zuen abenduan, eta bihar, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean emanaldia eskainiko du. Kantautore itxura duen taldea da Nahiak Nahi

LAKUNTZA

Nahia Ojeta bateriaren mundutik dator. Duela lau edo bost urte gitarra bat erosi zuen eta Iruñeko hainbat peñetan, gaztetxean eta "horrelako tokitan" kontzertuak ematen hasi zen. Izen artistiko bezala Nahiak Nahi aukeratu zuen. Bakarlarari moduan aritzen zen. "Denbora pasa da eta banda bat egiteko unea iritsi zela sentitu nuen". Banda sortu, eta diskoa kaleratu du Nahiak Nahik, eta bihar, larunbata, 19:00etan, kontzertua eskainiko du Lakuntzako kultur etxean. Alvaro Olano kantautoreak ere emanaldia eskainiko du.

Abestiak Ojetarenak dira. "Eginak zeuden, estruktura, letra eta dena". Aldatu den gauza bakarra bandaren osaera izan da: Ojeta hiru lagunekin, "betiko kuadrillakoekin", elkartu da diskoa grabatzeko. Inaki Pulido baxu jolea da eta korduak egin ditu, Ruben Matillak gitarra elektrikoa jotzen du eta Jaitxo Segura bateria jolea da. Ojetak abestu eta gitarra akustikoa jotzen du. Gainera, taldearen lehenengo diskoan kolaborazioak izan dituzte: "Esaterako, Maialen Gurbindo, Chica Sobresalto, orain kasualitatez Operacion Triunfo talent saioan dagoen neska. Bateriaren soinuak Arkaitz Ezkaik jarri dizkio".

Zortzi abestik osatzen dute *Jarrera bidea da* diskoa. "Ez zegoen gehiago egiteko dirurik". Hala ere, Ojetak abestiak egiten jarraitzen du. "Bizitza bakarra da. Musika niretako ihes egiteko modu bat da. Txute hau ez badugu... gaizki". Kantak Ojetaren "hainbat eta hainbat" bizipenen ondorengo emaitzak dira. "Beti saiatzen naiz modu positibo edo baikor batean egiten". Horrelakoa dela eta horrela "naturalki" ateratzen zaiola azaldu du abeslariak; "momentuz".

Kantautore eta pop-rock estiloko egiten duela azaldu du Ojetak. "Ez dakit oso ongi nola esan".



Nahiak Nahi taldea, Nahia Ojeta erdian dagoela. UTZITAKOA

"BIZITZA BAKARRA DA, ETA MUSIKA IHES EGITEKO MODU BAT DA; EMATEN DUEN TXUTE HAU GABE..."

Diskoa masterizatu zuenari galdetu omen zion haren estiloa zein zen, eta ekoizleak kantautorea zela esan zion. "Nik ez nekien hori estilo bat zenik, eta baietz esan zidan". Abestiei bateria eta baxua kentzekotan abeslaria gitarra jotzen gelditzen dela esan du.

Aurrera egiteko desioak behar direla esan nahi du nahiak nahi. "Egia esan izena jarri nuenean ez nuen nirean pentsatu. Lagun batek esan zidan bazirudiela nahi asko nituela. Baina ez da nik pentsatu nuena, inolaz ere". Bizitzak nahiak izatearen garrantziaz hitz egiten du, beraz, taldearen izenak.

Diskoa arrakasta handiarekin aurkeztu zuen Nafarroako Antzerki Eskolan. "Pasada bat izan zen". Eszenatokiaren aurrean egotea "handia" izan zela esan du Ojetak. "Ni beti bateria jotzen

egon naiz, eta horrelako papera aldaketa izugarria izan zen". Gainera, "antzerki" txiki bat egin zuten ere. "Ni atzean itxoi-ten nengoen eta bat-batean agertu nintzen. Oso polita izan zen. Magikoa. Ongi konektatu genuen".

Bihar, larunbata, 19:00etan, Lakuntzan egongo da eta azken astetan kontzertua prestatzen egon da Nahiak Nahi. "Lakuntzako kultur etxea oso egokia da niretako. Abestien arrazoiak eta mezuak bidaltzea gustatzen zait, eta formatu hori oso ona da". Aurkezpenaren egingandako kontzertuaren "nahiko antzekoa" egingo dutela esan du Ojetak. "Jarrera onarekin agertuko gara".

Alvaro Olano kantautorearekin ariko da Nahiak Nahi. "Gure lerro beretik doan musika. Oso ongi". Kantautoreak "lehenengo lerrora" ekarri behar direla azaldu du Ojetak.

Lakuntzako Nahiak Nahi zuzenean ikusteko aukera bakarretarikoa izango da, momentuz. Hurrengo kontzertua martxoaren 6an izango da Iruñean. "Esan digute hainbat emanaldi egiteko, baina kontzertu gutxi eta landuagoak egin nahi ditugu".



BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Liburu proposamenak

Bajo las cenizas de la Navarrería

Begoña Pro Uriarte

1276an Navarrerriako gudan garaituak izan ziren zaldun nafarrek, Calahorran erbesteratutaak, ez dute ez ahaztu ez barkatu. Zortzi urte igaro dira jada. Guztia galdu dute: haien ondasunak, haien lurrak, eta hau gutxi ez balitz, "banido" hitz iraingarria erabiltzen dute haietaz ari direnean. Nafarroari begira bizi dira, itzultzea utziko dien seinale baten zain.


Zoritzarrez, ez da seinalea iritsi zaiena, baizik eta haien liderra den Garcia Almoraviden atxiloketa eta exekuzioa. Minaren minez, haren anaia den Fortun ekintzara pasatuko da, eta horretarako haren alaba Johana eta semea Martin erabiltzeko zalantzarik ez du izango.

Liburu honekin, Begoña Pro ezagutzeko aukera bikaina izango duzu, eta nahiz eta istorioa historian kokatzen den garai hori gustatu ez, asko disfrutatuko duzu liburu honen irakurketarekin.

Etxeak eta hilobiak

Bernardo Atxaga

Liburu honekin irakurleak Ugarteko herritik Pauera, Baionara, Gaztelara, edo Texasera joateko aukera izango du, batetik bestera, gelditu gabe. Narrazioan sartu eta atera dabilta anaia bikiak, Frantziara frantsesa ikastera joan eta mutua itzuli den nerabea, astero psikiatra batengana joaten den ingeniaria, "From fat to fit" telebista programaren protagonista....



Koala ahaltsua

Rachel Bright, Jim Field
0-7 urte

Kevin koalak dena beti berdinegotea nahi du. Baina egun batean ustekabea izan, eta Kevinek ikusiko du bizitza desberdina eta zoragarria izan daitekeela. Marrazki zoragarriez lagundutako istorioa.

Sakañaren azkena eta behin betikoa gaur

Bardoak 2020eko lehenengo fasearen hirugarren asteburua jokatu da gaur Lesakan, Leitzan eta Otsagabian. Sakandarrek finalurrekoetan sartzeko txartela jokatu dute Otsagabiako Gartxot elkarteetan, 20:00etan, Amortziaren eliobak-en kontra

SAKANA

Asteburuan jokatu zen Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketaren bigarren asteburuan eta dagoeneko bi talde sartu dira finalurrekoetan: A multzoaren Bertsonautak eta D multzoaren Lamixene. Gaur, otsailak 14, ostirala, lehen fasearen azken hiru saioak jokatu dira eta B multzoko eta C multzoko sailkatuak erabakiko dira, baita D multzotik finalurrekora joaten den bigarren taldearen izena ere. Sakañan izan daiteke sailkatua.

Sakandarrek atsedena izan zuten aurreko jardunaldian eta 16 punturekin hasiko dute Otsagabiako saioa, Iturmendin irabazi ondoren. Amortziaren eliobak izanen dute kontra, aurreko saioan Lamixeneren kontra galdu zuela. Hala ere, taldeak 10 puntu jaso zituen. Lamixene dagoeneko finalurrekoetan da.

Finalurrekoetarako txartela lortu zuen beste taldea A multzoko Bertsonautak da. 31 pun-



Larraun da Araitz. Bi dozena. NAF. BERTSO. ELK.

turekin multzoko irabazlea izan da. A multzoan Larraun da Araitz taldea bigarren sailkatua izan da. Taldeko bi kide sakandarrak dira: Oier Lakuntza Irigoien urdiaindarra eta Irurtzunen bizi den Joana Ziganda Olano oskoz-

tarra. Lehenengo saioa irabazi zuten arren, bigarrenetan ezin izan zioten Bertsonautak taldeari aurre egin.

Aurreko asteburuan Bardoak 2020eko bost saio jokatu ziren Elgorriagan, Lizarran, Barañainen eta Iruñean. Gaur jokatu dira azken hiru saioak eta finalurrekoak erabakita geldituko dira. Lesako Arrano elkarteetan, 19:00etan, izanen da gaurko lehenengo saioa. Arranopola eta Bertsozpiak ariko dira. Biek irabazi zuten lehenengo saioak, beraz, saioa jokatu izanen da. 19:30ean, Lietzako Atekabeltz gaztetxean, Atekberts komeni taldeak etxean jokatu du Hego haizea taldearen kontra. C multzoan berdinduak daude bi taldeak, eta kasu honetan ere jokatu izanen da saioa. Azken saioa Otsagabiako Gartxot elkarteetan izanen da, 20:00etan, eta Amortziaren eliobak etxean ariko da Sakaña taldearen kontra. Sakandarrek abantaila daramate.

2020ko ihoteetako lehiaketa

Otsailaren 5etik
martxoaren 4ra



Sariak: Errigora kaxak
eta Guaixe25 kit-a

www.guaixe.eus



Viejos mundos nuevos antzezlaren une bat, Itsaso Arenzanaren pertsonaia pantailan dagoela. UNAI BEROIZ

"Antzezlana nire aukera izan da"

ITSASO AREZANA AKTOREA

Antzezlaren bidez beldurrei aurre egin die Itsaso Arenzana etxarriarrak. Gizakia Helburu-n arazoak gainditzeko sartu zen, eta oholtzara igotzeak bizitza aldatu dio

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ Arte eszenikoen bidez XXI. mendean sortzen ari diren giza eskubideei buruz hausnartzea du helburu Ados teatroa konpainiak 2016an sortu zuen Giza Eskubideak Eszenara (gaztelaniaz, Derechos Humanos a Escena) programak. Proiektu honetan antzerki konpainiak profesionalak eta gizarte-bazterkeria sufriz duten kolektiboak batzen ditu eta elkarrekin eta berdintasunean antzezlana bat hutsetik sortzen dute: gidoia idaztetik eszenaratzerara arte. 2020an programaren laugarren edizioa egin dute, eta Ados Teatro konpainia

Gizakia Helburu (gaztelaniaz, Proyecto Hombre) eta Mentalia elkarteetako erabiltzaileekin aritu da *Viejos mundos nuevos* lana prestatzen.

Proiektuan parte hartu dutenen artean sakandar bat dago: Itsaso Arenzana etxarriarra. Oholtzaren haren eta bere lagunaren esperientziak konpartitu ditu. Antsoain-

"NIRE PERTSONAIA NIRE BIZITZAN GERTATUTAKO EGOERETAN OINARRITUTA DAGO"

go kultur etxean mustu zuten antzezlana eta etzi, igandean, mustutzearen arrakasta errepikatuko dute Atarrabiako kultur etxean, 19:00etan. Sarrerak agortu dira. Lanak edozein pertsonak aldatzeko duen eskubideari buruz hitz egiten du, eta bi errealtate aurrez aurre jartzen ditu.

Nola sortu zitzaizun proiektu honetan parte hartzeko aukera?

Alkoholarekiko mendekotasuna nuen eta bederatzi hilabetez Gizakia Helburu-n egon nintzen. Terapeutak parte hartzerari animatu ninduen. Proposatzen dudana guztia lortzeko gai naizela konturatzeko balio zuela esan zidan.

Eta animatu zinen.

Nire beldurrei aurre egiteko aukera oso ona iruditzen zitzaidalako animatu nintzen eta beste pertsona batzuek laguntzarik eskatu behar badute beldurrik eta lotsarik gabe eskatu dezaketela erakusteko.

Aurretik Ados Teatroren proiektu hau ezagutzen zenuen?

Ez, ez nuen proiektua ezagutzen eta oso interesgarria iruditu zitzaidan.

Zein da Giza Eskubideak Eszenara proiektuaren helburua?

Gizarteari ikustaraztea bizitzan aldaketa bat egin daitekeela. Lotsak alde batera utz daitezkeela, eta frustrazioen, gorrotoen eta, batez ere, mendekotasunen inguruko kontzientzia har daitekeela. Denek lor dezaketela. Bigarren aukerak badaudela.

Nola lagundu dizu?

Proiektu honetan egoteak lagundu dit bigarren aukerak badirela konturatzeko. Jendeak niri buruz esaten edo pentsatzen dituenari beldurra kentzen dit proiektuak. Nire arazoa, alkoholarekiko mendekotasuna, kontzientzia indartuta ateratzea zaila da hasieran, baina gero sari handia du. Bizitza aldaketa suposatzen du.

Pentsatzen zenuen emaitza horiek izango zituela?

Ez, inolaz ere ez.

Antzezlaren batean parte hartu duzu.

Aurretik antzerkia egin duzu?

Ez. Hau bezalako zerbait egitera animatzen naizen lehenengo aldia da, eta oso harro nago. Txikitzen nire bizitzan noizbait antzerkia egitea edo aktorea izatea zen nire ilusioa. Eta hau nire aukera izan da.

Nola izan da proiektu honen parte izatea?

Proiektu honetan parte hartzea oso polita izan da. Beste pertsona batzuen istorioak ezagutu ditut eta askotan identifikatuta sentitu naiz. Eta pentsatzen duzu: ez naiz hau guztia gertatzen zaion bakarria. Ez naiz zomorro arraro bat. Beldurra apurtu ditut eta nire burua gehiago ezagutu dut. Uste nuen ez nituen sentimenduez ohartzeko lagundu dit.

Nortzuk landu duzue antzezlana?

"ESPERIENTZIA BAKARRA IZAN DA; AGERTOKIAK EMATEN DIZUNA AZALDU EZIN DEN ZERBAIT DA"

Gutxienez 15 pertsona geunden. Gizakia Helburu proiektuko sei pertsona, adimen-urritasuna duten hainbat pertsona eta antzerkigile profesionalak: Jose Mari Asin eta Patxi Perez.

Zertan oinarritu zarete 'Viejos mundos nuevos'-en gidoia sortzeko?

Bakoitza bere mendekotasun-arazoan oinarritu da. Bere mailetan duena kontatu du; gauza onak edo txarrak izan daitezke. Hortik sortu da lana.

Nolakoa da zure pertsonaia? Protagonista zara?

Protagonista banaiz; denok gara protagonistak. Nolabait, nire pertsonaia neure bizitzan bizi izan dudana egoeretan oinarrituta dago.

Zenbat denbora aritu zarete prestatzen?

Zorokiain izeneko herri batean soinuak grabatzen bi hilabete inguru egon ginen. Agertokian entseatzeko hiru aste baino ez genituen eman. Azkenean, ondo aterako ote zen beldurrarekin geunden, baina profesionali esker oso ondo atera zen.

Estreinaldia Antsoaingo kultur etxean egin zenuen. Zer moduz joan zen?

Urtarrilaren 31n Antsoainen aritu ginen eta dena betetzaz goen. Jende asko sartu gabe geratu zen. Igandean bigarren emanaldia egingo dugu eta esan behar dut ez dagoela sarrerarik. Arrakastatsua izaten ari da. Horrela jarraitzea espero dut.

Nola izan zen agertokira igotzea eta publikoaren aurrean jartzea?

Uf! Adrenalina. Eszenatokira igotzen zarenean dena ondo ateratzea begiratzen duzu. Ez duzu eserita dagoen jendea ikusten, baina emanaldia amaitzea eta mundu guztia elkartasuna dagoela ikustean, zorramena da. Ez dizu ia denborarik ematen dagoena eta ez dagoena ikusteko.

Zer moduz taldekideekin?

Oso ondo. Hasieran ez genuen elkar ezagutzen, eta egunak igaro ahala taldea egiten duzu. Ikuskizuna amaitzen denean denok elkarri besarkatzen diogu, betidanik ezagutuko bagina bezala. Oso polita da.

Antzerkia egiten jarraitu nahi duzu?

Agian, bai. Esperientzia bakarra da. Agertokiak ematen dizun guztia azaldu ezin den zerbait da.

Zerbait gehiago gaineratu nahi duzu?

Laguntza behar duen jendeari esan nahi diot beldurrik gabe eskatzeko. Gero sariak oso onak dira. Askotan bizitza bere onera aldatzen zaizulako.



'Herrixka galduen dantza'-ren entseguan Uharte Arakilen. UTZITAKOIA

"Gero eta jende gehiago animatzen da dantzara"

Uhartan ihoteak prestatzen pare bat aste daramate dagoeneko. Hirugarren urtea da Galtzorratzek herri-ihotea antolatzen duena. Unai Martinez Sebastianekin "Herrixka galduen dantza"-z aritu gara. Hilaren 21ean, 20:00etan, dantzatuko dute.

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL

1 Herrixka galduen dantza. Zein herrixka dira horiek?

Inguruan zeudenak, eta Erdi Aroan galdu zirenak Uharte Arakil hiribildu berria sortzeko. Oker ez banago, Uharte barne, 12 herrixka ziren gaur egun eza gutzen dugun Uharte Arakil osatu zutenak.

2 Zergatik herrixka horien dantza bidezko aipamena?

Azken urteetan Uharteko inauteria nahikoa arrunta izaten ari zen. Uharteko herri ihotea galduta zegoen, adinekoek ez zuten ezer oroitzen. Eta berreskuratu beharrean zerbait berria asmatzeko aukera planteatu genuen. Ibarreko ohitura eta dantzetan oinarrituta dantza hau sortzea

erabaki genuen. Eta Herrixka galduen dantza izena eman genion, nolabait, topaketa hori irudikatzen: nola bildu ziren herrixkak gaur egun daukagun herria osatzeko.

3 Zeinek sortu du dantza?

Galtzorratzen musikari eta dantzari paregabeak dauzkagu. Andoni Gastaminza akordeoila-

riak melodia asmatu zuen. Doinaua itsaskorra da oso. Iñaki Retegik eta Xabier Gonzalok asmatu zuten dantza. Duela hiru urte hasi ginen, eta pitteka lekua egiten ari da.

4 Nolako dantza da?

Erraza, jendeak arazorik gabe ikas dezan. Su handi bat pizten da, Liserigeitz popina harrapatzen dugu, erretzeko, jendea inguruan biltzen da, korrontxo handi batean eta bikoteka dantzaten du. Birbilketa moduko pauso batzuk ditu eta bals zati bat. Aurreneko urtetik harrera oso ona izan zen. Ttanttaka bada ere, gero eta jende gehiago animatzen da dantza egitera. Polita da.

5 Dantza ikasteko saioak antolatu dituzue, ezta?

Ihotea aurretik bizpahiru entsegu antolatu ditugu, jendea ikas dezan. Asteazkenetan, 19:00etan, Alondegian.

6 Zein musika tresnaren doinura dantzaten duzue?

Soinuarekin eta perkusioarekin, tinbala eta kutxa. Joan den urtean trikitixa bat sartu genuen. Ez dago batere itxita. Moldatu daiteke. Gure helburua da jendea parte hartzea. Esaterako, txistulari bat etortzen bada, moldatu daiteke. Ez du zertangatik berdin berdin errepikatu behar.

7 Herri-ihoteak indartzeko saio baten parte da dantza, ezta?

Bai. Aurretik izan zen beste talde bat ihotea ikertu zuena. Haiek ondare txiki bat utzi ziguten. Guk hura jaso dugu, eta barneratu nahian egitaraua egin dugu. Popina eta dantza asmatu ditugu.

8 Mozorro tailerrak ere antolatu dituzue, zergatik?

Asteazkenetan, 18:00etan, Alondegian; dantza entseguen aurretik. Mozorroak egiteko osagaiak eskuratu ditugu: zakuak, zintak... Jendeak bere mozorroa egin dezan antolatu dugu. Askotan ez delako erraza mozorro horiek egiteko halakoak topatzea. Mozorroa egiteko jendea etortzera animatzen dugu!

9 Galtzorratzek zenbat urte dararama herri-ihoteen antolaketan?

Hirugarren urtea da. Iruditzen zaigu oso polita dela. Pena ematen digu galtzea. Gehiago berezi nahi genuen herri-ihotea dena eta inauteri komertziala dena. Horregatik, aurten egun desberdinetan ospatzea sustatu dugu, jende askok bietan gustura parte hartuko duelako.

10 Nortasun bat sortzeko?

Bai. Gure ustez inauteria da gauza bat Euskal Herrian oso errotua dagoena, eta zaindu beharrekoa dena. Gure izaera, gure sustraiak ere hor daude. Gauza horiek mantendu behar dira.

11 Herrixka galduen dantzaz aparte, Uharte Arakilek berezko beste dantzaren bat du?

Uharteko zortzikoa, sanjuanetan dantzaten dena. Galduta egon zen dantza bat da. Duela 15 urte inguru berreskuratu zen. Ezusteko handia izan zen, konturatu zirelako letra eta guzti zeukala. Hiru emakumezkeri esker (zenuak) lortu zen berreskuratzea: doinaua eta letra atera zen. Geroztik urtero dantzaten da sanjuanetan.

Osorik: www.guaixe.eus

